

# OIHENARTEN AMODIOZKO NEURTITZEN TEMATIKA

Luis Maria MUJICA

## SARRERA

Oihenarten euskal idazkietara, eta, batez ere, bere neurtitzetara hurbildu diren autore gehienek (hala-nola, Lafon, Gavel, Irigarai, Mitxelenak) gure poetaren mintzo hertsia, labur eta gaitza azpimarratu dute. Izan ere, bere idazkietako morfologia bereziak, sintaxia gaitzak, sinkopaziozko joerek eta lexiko arkaizanteak zailtasun guzti horiek argitan uzten dituzte.

Aldi berean, nabarmen utzi dute batzuek gu hemen azterkizun dugun amodiozko poetikaren alde ezkutu eta gaitza. Oihenartek, inork ez bezala, eta orain lau bat mende, gurean hain ohizkoa izan ez den bide kultista eta landua hartu zuen, garaiko iruditeriaz hornitua. Bide hain gaitzak, noski, jarraitzaile urri izanen zuen, estetika hark Euskal Herrian lirika zaharrak herriko uretatik jasoriko bidea saihesten baitzuen, nolabait.

Halere, bere bidea erro-errotik ikusten bada, nahiz-eta jantzi kultistaz eman, amodioa edozein literaturatan dituen ildoetatik doa, hots, kontraesan, grina, ezinegon, arbuio, uko, samin eta gisako aldartetatik. Bestalde, berarengan atzemandako iruditeria errenazentista ere naturaren so estetiko batetik hurbil dago, eta alde horregatik aurrez uste izan daitekeen baino hurreagoa da Oihenart. Ez, noski, formaren eta mintzairaren ikuspegitik. Bere sinbolismoa errenazimentutik hurbil damaren somatismoa *perlaz*, *koralez*, *kristalez* hornitzen duenean. Amodioaren aldartetan, alde batetik, ertaro osotik datorren amodioaren trataera ezagun bat atzemangarri (Etxeparek hain ongi isladatzen digun amodioaren sekretua, grina, arbuioa, samina), eta, bestetik, errenazimentua itsasten dion iruditeria klasizista. Alde horretatik, bada, Oihenart ez da uste litekeen bezain originala.

Guk azterketa honetan bere amodiozko neurtitzen tematika aztertuko dugu hogeita bi puntu ukituz, eta horien artean, amodioaren guztizkotasuna, edertasunaren ikuspegia, arbuioa, samina, epiteto zenbait, koloreak, damaren

somatismoa eta poetaren iruditeria ernazentista. Beraz, ez gara mugatzen *Joana* emazteari eskainitako poetikara, bere amodiozko sorkuntza poetiko *zabalera* hedatzen baino. Aldiz, erlijiozko poesigintza ez dugu hemen ukituko.

Oihenart Etxeparekin erkatzen badugu laster azaltzen da honen desberdintasuna, mintzoaren aldetik ez ezik, amodioren trataera benetako eta hurbilagotik. Oihenart hotz eta kultista zen, Etxepare, aldiz, zuzen eta sutsuagoa. Bietan, halere, amodioaren pasarteak antzekoak; bietan grina, amodio ezkutua, damaren arbuioa, malura eta sumintasunaren zikloa. Dena den, Mitxelenarekin esan dezakegu Oihenarten poetika Etxeparearena baino kanpotikoagoa dela: «Baina negarrak, zinkuriak, zauriak eta eriotza aipatu arren, ez tigu alako biotz-ondokorik ematen. Axalekoak dirudite Detxepare-ren itzen ondoan. Onenak, soillagoak eta zakarragoak izanagatik, kementsuago inarrausten gaituzte, obeto ezagutzen baitzuen amorioaren indar purrukatzaillea eta maitemiñak jo duen biotzaren ezinetsia»<sup>1</sup>.

Azkerketa hau egitean gure asmo apala Oihenart bezalako euskaldun argi eta edertzalearen amodiozko hurbilketa osatzea da, eta, prezeski, bere bihotzaren aldarreak hobeto ezagutzea.

## I. MAITASUNA, AMODIOA

Oihenarten neurtitzetan, batez ere, poetaren gaztaroa eta amodiozko soslaiak isladatzen zaizkigu. *Argia*, *Beltxarana*, *Xuria*, *Graziana* dira amodio horren adirazpideak, nahiz eta ezezagunak izan guretzat dama horiek. *Joana* izanen da, soilik, egiazko amodioaren euskarri, poetaren emazteki bihurtuko zelako.

Oihenarten amodiozko zertzelada positiboetan garaiko jarduera, zintzotasuna, amodioaren eksklusibitatea, maitasunaren guztikotasuna, edertasuna, eta abar azaltzen dira. Baita amodio gaitzaren, hots, amodio erosi eta behartuaren alde txarrak. Denak bertso sotil eta hertsatuetan, bertso ebaki eta gaitzetan eskaintzen zaizkigu. Lehenik ikus dezagun bere mintzoa *maitasunari* dagokionez.

Nik eztut ehor maite zu beizi.  
Zuk zeren nahi nuzu ireizi?

Oihenarten aitopen honek maitalearen eksklusibitatea adierazten du. Bigarren bertso-lerroak, berriz, amodioaren errezeloa nabari, hots, maitearen arbuioaren kezka.

<sup>1</sup> Luis Mitxelena, «Arnaut Oihenart», in BAP (1953) 445 or. Guk hemen erabiliko dugun Oihenarten testua Txillardegik Ed. Lur-en argitaratutako Oihenarten *Atsotitzak* eta *Neurtitzak* lanetik harturikoa da, autorearen garaiko ortografia gaurkotuz eta egoki den zuzenketa zenbait eginez.

<sup>2</sup> V. atala, 1 ahap.

Poetak amodioa heriotzea sortzeko lain dela esaten digu. Errezelo jeloskor horretan andereak maitalearen heriotzea ekar lezake, amodioa izanez tarteko:

Ezpere, hura hilen d' eta zu  
harzaz huts zirate hospazu  
gizon bat galdu dukezulakotz,  
zergatik? maite zintielakotz<sup>3</sup>.

Oihenarte dama hotzaren aitzakietara ateratzen da. Gurasoen kontrajoera ez da aski ezetza jasotzeko; anderekiak nahita ezkon litezke, gurasoak ez daitezkeelako kontrajarri. Poetaren arrazoi horien azpian arbuioaren eztena nabari:

Eztuzu zer uka, zarel' ogenduru,  
ez zer har ait'amen nahia stakuru.  
Ezta maitezko gauzetan,  
haurren bortx'ahalik hetan<sup>4</sup>.

Beraz, Oihenartek arrazoikotzat ematen du gurasoei uko egitea; errua, ordea, kasu honetan anderekiaren aldetik dago. Bide beretik hurrengoa:

Nihaturen azkazi hurrenak  
dira poxelatzen dutenak,  
eta nutenak nihaur er'asaldatzen,  
zergaiti baitut hura hambat maitatzen<sup>5</sup>.

Maitaleak bortxakeria oro arbuiatzen du; maitatzea bihotzaren arazoa da edozeinengan, askatasuna balio nagusia izaki:

Maitarien jaun erregeak  
higu ditu bortxa-legeak,  
eta haren resuman libertatea  
da gobernari, eta nabusi alkatea<sup>6</sup>.

Askatasuna, errebindikatuz, *governari* eta *alkate* irudien pean, amodioaren arazoetan hirugarren pertsona baten borondate ukatzailea arbuiatzen da. Amodioak guztiz askea izan behar du erabakiak hartzeko, eta, baita, maitearen amodioarekiko «tink egoiteko».

<sup>3</sup> V. atala, azken zatia.

<sup>4</sup> VI. atala, 3. ahap.

<sup>5</sup> VII. atala, 3. ahap. *Stakuru* (lat. *obstaculum*-etik), bokalearteko likidaren ohizko aldaketaz eta txistukariaren aurretiko protetikaz.

<sup>6</sup> VIII. atala, 5. ahap. Amodio horrek, bestalde, beste atal batean ikusiko denez, probaren beharra du, poeta pertsonalki eskaintzeko prest dagoena: «Ezar nezan porogutan (hemen hitzak anaptixia PR taldea deuseztatuz); /ordea, hambateki,/ez isireki /har, den'eztela, burutan» (XI. atala, 2. ahap.). *Isireki* unitibo ez mugatuan Lafonek dioenez *isi*-ren ildotik («Notes pour une édition critique et une traduction français de poesies di Oihenart» in ASJU (1955), 76 or.).

Bestalde, poetak maitasun horren guztizkotasuna eta gorentasuna kantatzen ditu. Maitalea sutsua da, jarrera guztizkoen zale. Anderekiari jarrera bera eskatuko dio.

Hona poetaren guztizkotasun horren adibide bat:

Bana ni bano  
ez egundano  
nehor zuretarragorik<sup>7</sup>.

Dena den, guztizkotasun horren egia maitalearen tasunak ere (*prestutasuna, ontasuna*) gorenak direlako da; nolabait, hainbatekotasun baten ordaina da:

Zeren baita hain haitu,  
eta zeren garhaitu  
prestuz et'ontarsunez  
bertze nesk'oro baitu<sup>8</sup>.

Hurrengoan maitearen zuhurtzia eta jakintasuna ohorarri:

Zeren dena guzia  
baita ber zuhurtzia,  
eta jakitarzunez  
orozaz gainti utzia<sup>9</sup>.

Poetak garbiro aitortuko du bere maitasuna gehiegizkoa («maitegiak») dela damaren aldetik halako lotsakizuna pairatzeko; okerrak, bada, bestearen aldetik datoz.

Zer ere zugati, nigati  
bailedask'izterbegiak,  
gal zaitzadan eztu hargati  
merezi ene maitegiak<sup>10</sup>.

Aitorkizun bera, hots, maitasun guztizkoaren testigutza hurrengo neurtitzean ere, neskari jarrera berbera eskatuz. Maitasuna elkarrekikoa da; etzaio laket arbuioa eta hoztasuna maitalearen aldetik.

Maite banuzu, berzez goiti,  
nik zu zaitudan bezala,

<sup>7</sup> IV. atala, 11. ahap.

<sup>8</sup> XIII. atala, 3. ahap. Lafonek dio: «*Haitu* désigne ici une qualité et ne peut signifier «hautain» comme en IV, 58 («Notes pour une édition...», 78 or.).

<sup>9</sup> XIII. atala, 4. ahap. Hurrengoan, berriz, damaren mintzoa, izpiritua eta adimena estimagarri: «Minzatze'ederretako, /spritu are hobetako, (adimenduz, eranzun /nik ezin bezalako» (Ibidem, 5. ahap.). Fonetikoki *spritu* delakoan protesi-ezaren kultismo nabaria eta azentu bortitzak sorturiko atzetonikaren erorketa, PR sasi-taldea sortuz.

<sup>10</sup> XV. atala, 5. ahap. *Bailedas(e)* «*edasi*» aditzaren sintetikoa. Cfr. R. Lafon «Notes pour une édition...» p. 8. Bi azken lerroen itzulpen hurbilekoa: «Mon amour exagéré ne mérite pas que je vous perde» (Ibidem).

zuanik hon ardietsi engoiti  
pens'ezazu ordu dudala<sup>11</sup>.

Ikusi dugunez, poetak kontrajarrerazko tenorez, maitasunaren jarduera *kosista* oro arbuiazen du; maitasuna ez daiteke eros, ez eta sal. Neurtitzen seigarren apala maitasun erosi horren arbuioa da:

Onharzun-truku huts, alab'ezkontzea,  
ezta hori ezkontze, bana da saltzea;  
haren erosle senarrak  
zer merezi luke? Adarrak<sup>12</sup>.

Logikoki, maitasunak jarrera garbia eskatzen du zuzterretik, ostera amodio-erosleak zorigaitza luke berarekin emaztearen fideltasuna galduz. Ordainetan, emaztea fideltasunetik aske legoke «adarrak» delakoak ironikoki azaltzen duenez.

Bere maiteari (*Ederragoa* deituari) poetak amodiozko maila gorena eskatzen dio, hitz batean, bihotzak maiteminduari ematen dion bera<sup>13</sup>.

## II. MAITASUNAREN ZINTZOTASUNA ETA ESKLUSIBITATEA

Hurrengo pasartetan Oihenartek maitaleari dion amodiozko eskusibitate eta fideltasuna isladagarri. Bi tasunak amodio baten esparruan loturik egon behar lukete, beti. Horixe eskatzen dio poetak maitaleari, bere amodioa eredutzat jarritz. Herri eta literatura guztietan azaltzen da giza antropologiarekin bat datorren amodioaren tasun hori, alegia, *fideltasunarena*, eta berarekin amodio «bakarraren» tematika.

Maitalearekiko fideltasuna edo zintzotasuna ohizko ildoetatik dabil, hots, maitaleak damari zor dion jarreratik. Amodioak absolutizatu egin nahi du joera, eta guztizkotasan horrek eskusibitate eskatzen du. Hona pasarte zenbait:

Zenbat nizan  
zutan izan

<sup>11</sup> Ederragoari, 5. ahap. *Engoiti* = aurrerakoan.

<sup>12</sup> VI atala, 5. ahap. Oihenartek amodioaren tematikan dakarren beste adierazpena «jabetzarena» da. *Jabe/zerbitzari* kontzeptua isladagarri testuetan. Maitaminduak dama bere jabetzat nahi luke, zerbitzaria poeta delarik. «Zerbitzatu, er'ohatu/neska ororen gainean» (II. atala, 13. ahap.), «Laur urte du, zuri beti, zure beti jarraikitez,/higatzen naizela, bai zerbitzu egitez» (VI. atala, 2. ahap.) «Alabaina nik eztakit,/zerbitzatzez, ohoratzez,/othe niroienez akit» (VII atala, 3 ahap.), «Eta nola jabetza/hartu dudana berura» (X. atala, 12. ahap.), «Et'egitera/mana nezana guzia» (XI. atala, 1. ahap.), «Dohainetan neduke/haren zerbitz'ahala» (XIII. atala, 2. ahap.). Denetan argiena, agian, hurrengoa: «Aspaldi nola zuen norhabe/izan bainaz, zuek ene jabe» (*Ezkontidearen hil-kexua, 1. eta 2gn. multzoa*).

<sup>13</sup> Ederragoari, 5. ahap. Lafonek: «Si vous m'aimez, comme je vous aime, plus que les autres, pensez qu'il est temps que j'obtienne désormais du vous des faveurs...». «Traduction française des poésies d'Oienart», in ASJU (1955), 34 or.

beti tink eta ekhuru;  
zein, manura  
er', ardura  
erpai, ern'et'aiduru<sup>14</sup>.

Hemen guztizkotasun hori jarrera psikologikoz (ardura) eta *ern(e)* eta *aiduru* epitetoen bitartez isladaduta. Zintzotasunak, gainera, jarrera horretan eustea eskatzen du, beti esperantzari ateak irekirik:

Horiegatik  
orogatik,  
etzintuzket ehula  
banintz fida  
zuk gupida  
noizpait nindukezula<sup>15</sup>.

Iraupenean sostengatzen da, bada, maitasuna, eta bertan datza, gerorantz ere, maitalea bereganatzeko bermerik trinkoena<sup>16</sup>.

Dena den, zintzotasun absolutizatzaile eta eskluitzaile horretan poetak tenore berezia maitearen gogortasuna salatzen kontrajoeraz:

Zuzaz berzerik  
nehor maiterik  
eztudalarik herrian,  
ze bezain gorrik,  
ez hain gogorrik  
eztudala d'agerrian<sup>17</sup>.

Bi mutur horiek, hots, *fideltasuna* eta maitatuaren *gortasuna* nabariago ondorengo orritan. Gortasuna maitasun ororen kontraispilu da; okerrago, oraindik, kontraispilua arbuio definitibo bihurtzen denean, Oihenarte poetak errezeloa duen bezala.

Ondorengo pasartean nabarmen maitasun horren bakarrekotasuna edo esklusibitatea. «Nik eztut ehor maite zu beizi»<sup>18</sup>. Anderekia, ordea, arbuioaz salatzen du: «Zuk zeren nahi nuzu ireizi? (arbuiau)»<sup>19</sup>. Baten ardurak bestearen mesprezua eta desardura du ordain. Kontraposizioak «oro harena naizala» eta «ezta nizaz arregura» artean:

<sup>14</sup> II. atala, 14. ahap. *Ekhuru/ekhürü* (zubereraz) «tranquilo» esanahiaz, lat. *securus* etimologikotik hurbil.

<sup>15</sup> II. atala, 9. ahap. Lafonek zailtasunak aurkitzen *ezinsusquet* dela eta. Ikus art. c. 64 or.

<sup>16</sup> «Zeren nol'ene maite/ukeiteak iraitte/baitu, hur'ere agian /luzean gora daite» (XIII. atala, 30. ahap.).

<sup>17</sup> IV. atala, 1. ahap. *D'agerrian* = nabarmen («Il est en vue, à decouvert») (Lafon, art. c. 67. or.).

<sup>18</sup> V. atala, 1. ahap.

<sup>19</sup> Ibidem.

Erran baderaukat ezi  
oro harena naizala,  
nehor ere, hura bezi,  
onhetsirik eztudala,  
bana horregatik hura  
ezta nizaz arregura<sup>20</sup>.  
Nola nitan botere  
duen, handi hal'ere,  
eta berze maiterik  
nol'eztudan batere<sup>21</sup>.

Poetak damaren hautaketa egin duelako lehendiko maitale oro albora utzi du bati bakarrik atxikitzearren; ezerk ez dezake desitsas bihotza haren makurre-ratik. Kasu honetan *Joana* emazteari zuzendutako ahapaldia:

Ni zurretzen has bezain sarri  
berhez nindizun bertarik,  
lehen hautatu maitagarri  
nituen, nindutenetarik,  
orain eta betiereko  
zureki tink egoiteko,  
eta berhez neholatan  
enankidizun gisatan<sup>22</sup>.

Tenore bera (Baionako liburutegian aurkituriko) azkenaldeko amodiozko olerkietan. Maitasun horren esklusibitatea aitorturik arima eri dagoela adierazte-an:

Zuri huts, et'ez bertzeri  
darraik'ene gogoa,  
zuzaz, nola bait' er'eri  
nahiz izan sendoa<sup>23</sup>.

### III. MAITEREKIN TOPAKETA. ELKARREKIKOTASUNA.

Topaketaren tematika, nolabait, «segeretuarekin» lotu ohi da, maitaleak maitatua bakarrik ikusi nahi izaten baitu. Amodioa ezin daiteke elikatu harreman fisikorik gabe. Etxepareren poesian aski nabarmen topaketaren alde hau:

<sup>20</sup> VII. atala, 2. ahap.

<sup>21</sup> X. atala, 13. ahap.

<sup>22</sup> XV. atala, 1. ahap. *Enankidizun* = ez nekizun. *Neholatan* = inolatan («Forme d'eventuel à suffixe relatif» (*Lafon*, art. c. 81 or.).

<sup>23</sup> Beste zenbait olerki, II, 1 ahap. Eta, oraindik: «Zurekin ezagutze hartzten/hasiz gero, Ederragoa,/sendi dizut nitan eihartzten/bertzetrako amorioa, /orai eta sekulakoz /zure nizatealako» (Ederragoari, 1. ahap.).

Ene gogoa baliaki, maite bide ninduke;  
 ni errege balin banintz, erregina lizate.  
 Hura hala nahi balitz, elgarreki ginate;  
 haren haurrak eta eniak aurride oso lirake<sup>24</sup>.  
 Ene gogoa nola baita zuzen iarri hargana,  
 haren ere langoikoak dakarrela nigana,  
 ene pena sar dakion bihotzian barrena,  
 gogo honez egin dazan desiratzen dudana<sup>25</sup>.

Poetak *Argia* deituriko damari ikustordua zehaztea eskatzen dio, eta aldi berean tokia. Tokia *sekretuzkoa* izatea komeni da, bakardadeak barnekoitasuna areagotzen baitu:

Beraz higanik  
 egin, jadanik,  
 noiz nakidina dakidan  
 jin, eta hura,  
 gorde-lekura,  
 eta ni han bat akidan<sup>26</sup>.

Topaketaren esperantza gordetzen du poetak *Argiarekin* solasean, tokiaren isilekotasuna zainduz:

Atsegin ustez  
 har, zur'ikustez  
 beti, zu zaren lekura  
 so xuxen ari  
 naiz, senalkari  
 okerraren eredura<sup>27</sup>.

Ikustaldiaren grina adierazteko *zakurra* eta *erbiaren* sinboloaz ere baliatzen da gure Oihenart, urratsaren lehia hobeto isladatzearren:

Zu nahiz batu  
 eta minzatu,  
 hora nol'erbiratzean,  
 bazterrez bazter,  
 bethi ere laster  
 ari naiz zure hatzean<sup>28</sup>.

<sup>24</sup> B. Etxepare, Olerkia, Edt. Txertoa, 110 or.

<sup>25</sup> B. Etxepare, ibidem, 112 or.

<sup>26</sup> III. atala, 8. ahap. *Nakidina* = nadin higana (femeninozko itanoan). Aditza hobeto zehazteko ikus R. Lafon, *Le système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle*, t. II, 34-35, 45 or.

<sup>27</sup> IV. atala, 4. ahap. *Senalkari* = seinalekari, seinalea egiten duena, —*kari* atzizki aktiboaz. *So...ari naiz* = so egiten dut.

<sup>28</sup> IV. atala, 6. ahap. *Hora nol'erbiratzean* = zakurra nola erbiarengana...



*Argia* damaren jarrera, tamalez, arbuiozkoa da; andereki honek beti presa eta ukoa ditu ordain latz. «Nombait, bi-biak, heltzen bagira» da topaketazko koadroaren alde bat, eta «utzi zitzadan manuz baitzauzat» beste mutur negati-boa<sup>29</sup>. Bestetan, berriz, topo egitea ez dago maitaleen esku, gurasoen ukoaren mende baino:

Ni maite nuen, nik maitenik dudana  
ezt'ehon hauzu hurbiltzera nigana<sup>30</sup>.

Topaketa lehendik eginiko minaren ordain daiteke; amodioa elkarrekin ikusiz elikatzen da. «Kausit ahal baneza/nonbait berhez-berheza»<sup>31</sup>.

«Batzarre» hitzak Oihenarten poesian topaketaren semantika du<sup>32</sup>.

Bien arteko amodioa komeni da elkarrekikoa izatea. Maiteak maitemindua bilatzen du; berarengan du poza, erantzun-ezak, ordea, samindura. Amodioaren tenkadura elkarrekiko maitasun baten andanan doa.

Ikus dezagun elkarrekikotasun hori zertan datzan:

Zuk nizaz, nik zuzaz atsegin  
biek oroz bat hartzeko<sup>33</sup>.

Hemen *ni/zu* izenorde pertsonalen bitartez elkarrekikotasunaren adierazpe-na. Berdin hurrengoan:

Han erasten  
zerik hasten  
bainaiz ene gaizkia,  
eta, nire  
bezain, zure  
nola nizan egiaz<sup>34</sup>.

Batek bestearekiko duen ordaina nabarmen «zordun» hitza erabiltzean, maitasunaren tenorea azalduz. Ordain hori, noski, jarrera jeloskor batetik sortzen da:

Eia bada,  
ordua da,  
zuretan has ziteen  
ene hartzen,

<sup>29</sup> V. atala, 4. ahap.

<sup>30</sup> VIII. atala, 2. ahap.

<sup>31</sup> X. atala, 15. ahap. Hemen *berhez-berheza* delakoak *sekretuaren* tematika gogarazten du.

<sup>32</sup> «Mirets ziniro bazeneki/gau et'egun, zein ardura,/nahiz batzarre egin zureki,/jin nizan zur'okolura» (Ederragoari, 3 ahap.). *Okolua* hitzak jatorria lat. *locullum* delakoan, bere aldakiak beste euskalkietan *ikullu*, *ukullu*, *okelu* direlarik. Cf. Luis M. Mujika, *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*, 56. or.

<sup>33</sup> I. atala, 3. ahap.

<sup>34</sup> II. atala, 7. ahap. *Nure* «neure»ren diptongo murrizketa. *Erasten* = mintzatzen.

et'ohartzen  
zeren zordun zaudeen<sup>35</sup>.

Oraindik garbiago hemen azterkizun dugun elkarrekikotasuna «hiltzea gaitz da, gaitzago bana/ mait'uken, et'ez mait'izana»<sup>36</sup> dioenean. Oihenarten maite-esperientzia, bada, maiz, porrota izan da, ez du erantzunik eduki. Maitasunak, batzutan, maiteminduen mende ez dauden oztopoak ditu; adibidez, gurasoenak. Orduan elkarrekikotasun fisikoaren baldintza falta da. Hori dela eta poetaren kexua:

Maite dut, eta naiz maitatu,  
bana naiz hambat desdixatu,  
ni maite nuen, nik maitenik dudana  
ezt'ehon hauzu hurbiltzera nigana<sup>37</sup>.

Taxuzkoa da, noski, amodioa duenak maitasuna eskatzea maitaminduari. Amodioaren neurriak, gainera, parekoa izan behar du, ahalik eta handiena. «Baletsa Jaungoikoari/har nenzan zerbitzari/hark er', eta leriztan/hambat on zein nik hari!»<sup>38</sup>.

Maitearen esperientzia, tamalez, gaitza da, lagunak huts egiten baitio; ordainik ez ematen jarrera berdinez; *ordaria* falta zaio, hitz batean. «Geroztik esperantzaz hazi /dut neure maitakaria, /egunez egun irabazi /ustez zutan ordaria»<sup>39</sup>. Ideala norberarena baino gehiago maitearena izatea litzateke. Hori plastikoki adierazita hurrengoan: «Zeren bainaz, bizi nizano,/nihauren bano zureago»<sup>40</sup>.

Jarrera horretatik onura baino ez datorkio damari, amodioa ondasun bikoitza delako. «Hal'egitez zur', ene bano,/ eginen duzu gehiago»<sup>41</sup>.

Poetaren samindura elkarrekikotasun horretara ez ailegatzea izanen da, *Argia*, *Xuria*, *Beltxarana* damen kasuetan, adibidez. Horretan datza arbuioaren egia latza. Maitalearen barrunbea damaren pentsamendura atxikia egonen da,

<sup>35</sup> II. atala, 12. ahap. Etxeparek ere «zor handian zaude» (IX, 24) zioen maitale eskergabeari.

<sup>36</sup> V. atala, 6. ahap.

<sup>37</sup> VIII. 2. ahap. *Hauzu* = zilegi. *Lafonek* «n'a le droit» itzultzen du (art. c. 13. or.). Antzeko oihartzunak hurrengoetan: «...Ezi zu bazaud'eneke,/ni bizi eta hil nahi nuzu zureki» (VIII. atala, 6. ahap.), «Zu niganat hotzenago,/ni zugarat gortzenago» (VII. atala, 4. ahap.), «Nombait bi-biak, heltzen bagira/zu beti lehiatu zira» (V. atala, 4. ahap.), «Edo zoriak/nombait, bi-biak,/ noiz ere heltzen baikitu/ han, ni nigarzu/ikusiz, hark zu/gogoeritzen espazitu» (IV. atala, 9. ahap.).

<sup>38</sup> XIII. atala, 25. ahap. *Leriztan* ikusi R. Lafon, *Le système* I, 282 ond. *Baletsa «etsi»* aditzaren sintetikoa, datiboko kasuari (*Jaungoikoari*) atxikia.

<sup>39</sup> XV. atala, 2. ahap.

<sup>40</sup> XV. atala, 9. ahap.

<sup>41</sup> *Ibidem*.

erantzukizunik izan ala ez. «Non ere, noreki ere baniz, /pena dut zutan pensatzez»<sup>42</sup>. «En'ixil, eta (maiz pensaketa /egonak, ziotsan nigati»<sup>43</sup>.

#### IV. HIL ALA BIZI MAITASUNEZ

*Heriotza* eta *bizitzaren* antitesia ere nabarmen Oihenarten neurtitzetan; halere, heriotzea gehiago azaltzen da damaren jarrera uzkur eta mesprezagarrien ondorio delako. «Ezi bihotza, zu beti hala/ikusiz gibel zauztadala, /hotzarriturik orai hil-hila»<sup>44</sup>.

*Argia* damari zuzenduriko neurtitzetan «Hilpenetan behar dut itzuri» eta «Noiz ere bainaiz hauzaz orhitzen, /zin zinez, baniz hil-nahitzen» (*Lafonek* «très sincèrement je désire mourir») gisakoak ixurtzen ditu bihotzaren malura azalduz. Baita «Hiltzea gaitz da, gaitzago bana/ mait'uken, et'ez mait'izan»<sup>45</sup>.

Poetak, espero zuen amodioa ez lortzean, ezkaturik gabeko lanturuz herioari deitzen dio; maitasunik gabe bizitza gorrotagarri zaio:

Behar dudan gero zuzaz net etsitu...,  
betor betor herioa,  
bizi ene hastioa<sup>46</sup>.

Ondorengo kasuan, berriz, *hil* eta *bizi* antitesia maite-jarrera guztiko baten adierazpen gisa; poetak fideltasuna indar osoaz, hots, biziarekin eta heriotzarekin ondo indar nahi luke:

...Ezi zu bazaud'eneki,  
ni bizi eta hil nahi nuzu<sup>47</sup>.

*Zuria* deituriko damari bere arbuioaz eta mesprezuaz herio baten errudun gerta daitekeela dio. Poetaren bihotza hil dezake:

Zerbait eur'ontarzuneti,  
bihotz hunen pitzgarri,  
emadan sarri,  
begiratzeko hiltzati:

<sup>42</sup> I. atala, 3. ahap.

<sup>43</sup> III. atala, 4. ahap. Ildo beretik hurrengoak ere: «Banaiz jaikiten, /banaiz etziten, /zu zatozt beti gogara» (IV. atala, 2. ahap.), «Zuganik hon ardietsi engoiti/pens'ezazu ordu dudala» (Ederragoari, 5. ahap.).

<sup>44</sup> V. atala, 1. ahap.

<sup>45</sup> V. atala, 5. eta 6. multzoak. Baita hurrengoak: «Ezperere, hura hilen d'eta zu /harzaz huts zirate hospazu» (Ibidem, azken multzoa).

<sup>46</sup> VI. atala, 9. apala. Lehen pasartea gaurko euskara arautuan: «Zutzaz guztiz etsi egin behar izanen dudanez...».

<sup>47</sup> VIII. atala, 6. ahap.

ezpadidan, lur orotan,  
zeren hik hil banuken...»<sup>48</sup>.

*Beltxaran* damari ere herio-salaketa bera amodioa ukatu diolako. Oraingoan, ordea, salaketa hori zuzenagoa da, dudarik gabe:

Ezpanun hant'idokiten,  
zordun izan bezala,  
hik hil nunala  
dinat hil-aitorr utziten<sup>49</sup>.

Hemengo «hil-aitorr(a)» damaren jarrera zapuztzaitetik. Poetak damari doluzko egoeratik ateratzea eskatzen dio, amodio-ezak sorturiko egoera gaitzetik askatzea. Salaketa «hil hil nunala» delakoa da.

*Joana* emaztekiaren jokabidea, aldiz, positiboa izanen da. Haren amodioa *bizi eta hiltzea* merezi duen opari da. Horregatik: «Batez nago harturik/ hura gogoan sarturik, /ezin hil, ezin biziz, /nago net eihaturik»<sup>50</sup>. Logikoki, *Joanak* bizitza fisikoaz galtzen duenean poetak zertarako bizi bear duen esaten du; ez du merezi lur hontan irauteak bizitza *heriotzea* bilakatu baitzaio poetari:

O zer hiltze latz'enetako!  
Hura galduz gero zertako  
hemen, ala gaitz-beha nago?<sup>51</sup>.

## V. AMODIOAREN SEKRETUA

Ertarotik ernazimendura amodioren adierazpenetan «sekretuaren» tematika da berezitasun argienetako bat. Maitaleak sekretuan maite du dama; jelsokortasunak ezkutuko aldarteak maite ditu amodioa adierazteko. Beste maitaleen soetatik gorde nahi luke galaiak neska. Jokabide hau ere aski nabarmen euskal alorrean Etxepareren poetika gozo eta xaloan. Aski ditugu hurrengo testuak kontutan hartzea:

Balinetan nik banerro hari neure bihotza,  
eta gero balin balit respuesta bortitza,  
dardoak bano lehen liro erdira ene bihotza;  
duda gabe eror neinde han berian bihotza<sup>52</sup>.

<sup>48</sup> IX. atala, 4. ahap. *Hil banuken* = hilko bait naun. Zubereraz «*baitnūken*. Heriotzearen aipua hilobiaren irudipidean «Zeren nuken idoki/halaz osoki/sartzeraz geroz, hobiti» dioenean (Ibidem, 5. ahap.).

<sup>49</sup> XI. atala, 4. ahap.

<sup>50</sup> XIII. atala, 1. ahap.

<sup>51</sup> Ezkontidearen hil-kexua, 4. gn. multzoa

<sup>52</sup> B. Etxepare, *Olerkiak*, 110.or.

Tenore berdinekoak «Sekretuki behar dizit harekila mintzatu» eta «Biok behin sekretuki nonbait mintza gitian».

Etxepareren, eta garaiko frantziar poesiaren, ildotatik hurbil hurrengo pasarteak Oihenartengan:

Haur hal ezten  
ardiresten  
baitzituket batzutan,  
ez agerri,  
ez enzuerra  
eztateien lekutan<sup>53</sup>.

Beraz, maitemindua ez *entzun* eta ez *ageri* (ikusi) daitekeen lekutan atzematen da. Poetak dama toki bakartietan (bazter lekutan) topatzea nahi luke; leku ageriak gorrotatzen ditu:

Hirekil'aldiz  
bederak'aldiz  
bazter lekutan baturik  
nonbait banago...<sup>54</sup>.

Poeta, aldiz, ez da ausartzen *Argia* damaren etxe ondora agerian hurbiltzea; sekretuan nahiago luke:

Bana herabe,  
stakuru gabe  
dinat, Argia, jitera  
hir'etx'irira  
leku agerira...<sup>55</sup>.

Hurrengo ahapaldian, garbiro, toki sekretuaren guraria; topaketaren lekurik egokiena ezkutukoa da, hots, besteen soetara gorderik dagoena. Gorde-lekuaz mintzo da, bada Oihenart Etxepareren hurbiletik:

Beraz higanik  
egin, jadanik,  
noiz nakidina dakidan  
jin, eta nura

<sup>53</sup> II. atala, 6. ahap. Lafonek: «Pour qu'il n'en soit pas ainsi, je vous surprende parfois dans des endroits où l'on ne peut être ni vu ni entendu» («Traduction français...», 6 or.).

<sup>54</sup> III. atala, 2. ahap. *Hirekila* = hirekin; sozietiboan zubereraz —*kila*. *Bedaraka* = bakanka, bakarrik.

<sup>55</sup> III. atala, 7. ahap. *Ivira* = hurbilera, ondora. *Stakuru* = aitzakia, lat.*obstaculum*-etik.

gorde-lekura  
eta hi han bat akidan<sup>56</sup>.

Bihotzak duen malura eta samina adierazteko poetak ez du bakar-tokia baino besterik opa. Askatasun eta egokitasun hobea du maitaleak ezkutuan bihotza hustutzeko:

Kausit ahal baneza  
nonbait berhez-berheza,  
hun'ene penatzea  
baka bide baileza<sup>57</sup>.

Beste batzutan ezkutapena damaren aldetiko arbuioaren eta mesprezuaren adierazpen da; ez poetaren desiragarri:

Aitziti ni ekus-eta, gorde  
nahiz zabiltz' et' itzuri;  
eta hunki-jin erran orde  
ari zitzauzat belzuri<sup>58</sup>.

Galaiak, gainera, dama *gauean* ikusi nahi luke («Margarita, /jin-konjita/, gauan behin zugana»)<sup>59</sup>.

## VI. SUA

Suaren tematikak ez du halako garadurarik Oihenarten poetikan, nahiz eta molde errenazentistaren aldetik esperatzekoa izan:

Bero huntarik lipar bat,  
su huntarik huts inhar bat,  
O, laztana, eretxeki  
ahal banezazu zuri,  
nintzabela zait iduri  
sendo hainbertzereki<sup>60</sup>.

<sup>56</sup> III. atala, 8. ahap. «Eta hi han bat akidan» delakoak, garbiro, topaketaren egitateak isladatzen du. *Nakidina...jin* = nakinan etor, itanozko femeninoan. *Argia* damari, oraindik, bien artetik kanpoko ikusle oro arbuiauz: «Bana zureki nahi nikezi/ elizan nehor zuhaur bezi,( et'ikuslerik ageri elizan/ lekutara zindiaurizan» (V atala, 2 ahap.). *Zindiaurizan* = *jaugin* aditzaren sintetikoa, *etor zintezen*). *Lafonek jaugin* dela eta:» g est devenu r, comme dans soul. *tziauri* «venez» («Notes pour...» 69. or.).

<sup>57</sup> X. atala, 15. ahap. *Berhez-berheza* = bakan-bakanka, bakar-bakarrik.

<sup>58</sup> Beste zenbait olerki, V, 8 ahap. *Ari zitzauzat* = ari zatzazkit. *Itzuri* = ihesi.

<sup>59</sup> II. atala, 18. ahap. *Jin-konjita* = etorri-baimena. Amodioa, beraz, suaren irudipean adierazten da; suak bezala, amodioak erre egiten du maitalearen bihotza. *Joana* emazteari zuzenduriko neurritz batean su horren txinpart bat, bederen, eritasuna sendatzeko aski litzatekeela dio:

<sup>60</sup> XIV. atala, 4. ahap. *Inhar* = txingar. *Hainbertzereki* = besterik gabe.

Poetak sobera du su horren nimiño bat eskuratzea, gaisotasun orotik sendatua sentitzeko. Bestalde, poetak bere burua antitesi baten aurrean ikusten du, hotzak berotasuna eta urak sua sortzen baitizkio:

Ban'orai, miragarritan,  
hotzak beroa du nitan,  
urak sui'eraikiten<sup>61</sup>.

Gorago, irudi berarekin jarraituz, elurrak sua sortzen zuela bihotzean zioen («Elhurak alabadere naduka ni, hotz badere, /errerik bihotzean»)<sup>62</sup>.

Emaztekiari eskainitako atalean, oraindik, beste hitz-jokuak *sua* eta *hautsa* (ceniza) delakoekin, eta, era berean, *sua* eta *kisulabearekin* (calera):

Zurekin batu  
et'aize gabe.  
Su naiz bilhatu,  
ta kisu-labe.  
Maita nezazu,  
halaz hil daite.  
Espenezazu  
hauts gertha naite<sup>63</sup>.

Beste pasarte batean ere suaren ideia «ilhaunt enadin» hitzen bitartez.

## VII. EDERTASUNA

Damaren kalitate fisikoetan aipatuenetakoa edertasuna. Hori konstante bat da Oihenarteren neurtitzetan, eta poetak ezagutu dituen andereki guztiei atxikia azaltzen da. Nahiz eta atal berezian aztertuko, ditugun poetak dama bakoitzari egozten dizkion deskribapenak (ernazimenduko iruditeriatik hurbil *begi*, *lepo*, *bular*, *sabel*, *beso*, *esku*, *zango*, eta abarren trataeran), hemen edertasunari zentzu *zabalean* atxikitakoak kontsideratuko ditugu.

Edertasunaren tematika, bereziki, *Zuria*, *Joana* eta *Beltxarana* damen deskribapenetan. Hona lehen pasarte bat:

Amets, al'egia, d'ote nik enzuna,  
emaiten duzula zur'edertarzuna,

<sup>61</sup> Ibidem, 3. ahap.

<sup>62</sup> Ibidem, 2. ahap.

<sup>63</sup> XVI. atala, 9. eta 11. ahapaldiak. *Kisulabe* = calera, lat. *gypsum*-etik; Hegoaldeko (G.B.) *igeltsu*, aldiz, gaztelania zaharreko *yelso-tik*, Cfr. Luis. M. Mujika, *Latina eta erromanikoaren eragina euskarari*, 67, 128. or.

hon eztaritzozunari,  
moien apur baten sari?<sup>64</sup>.

Hemen nolabaiteko salaketa damaren edertasuna diru-trukezkoa bailitzan. Maiteak edertasun garbia nahi du, ez «ederrik gaitz dena» eta konparaketa baten bitartez «nol' ezne'uluzu» dena<sup>65</sup>. Ez daiteke edertasuna (*Edertza* dio oraingoan Oihenartek —*tza* atzizkia —*tarzuna* ordez abstraktukiago erabiliz) diruaren menpe ezarri; hori maitasuna mesprezatzea litzateke:

Egundan'ez ailiz jaio gaiztagina,  
«Edertza», neskato «Onaren» zeregina,  
edo jai' —eta, berhala  
hil ailiz, inhar bezala<sup>66</sup>.

*Zuria* damaren edertasun berezia da; behar bada, beste guztiena baino areagoa. Aitorpena *betartea* kontutan edukita:

Ederrenen bardina  
(ezpadohat'aitzina)  
da begitartez, eta  
diskret oboro ezina<sup>67</sup>.

*Beltxarana* anderekiari edertasun somatikoa zertarako duen galdetzen dio, bihotzez gogorra bada. Eta, berriro, edertasunaren aitorra («Eder eztena/hi bezalako ederraren»)<sup>68</sup>, baina bihotzaren gogorkeria ere adieraziz:

Zer probetxu edertarzuna  
da hire gorputzean,  
tink bihotzean  
badatxen gogortarzuna?<sup>69</sup>.

Edertasun horren gorengotasuna ondorengoetan ere:

Haren eder izana  
da hain gauza bakana,  
ezi eztuela kiderik  
baita jenden errana<sup>70</sup>.

Haren gorputz lerdena  
nik dudan maitena;

<sup>64</sup> VI. 1. ahap.

<sup>65</sup> V. atala, azken ahapaldia.

<sup>66</sup> VI. atala, 4. ahap. *Ez ailiz jai(o)* = jaio izan ez baledi. *Inhar* = txinpart.

<sup>67</sup> X. atala, 5. ahap. *Ezpadohat(2)* = ez badohakie. *Bardina* hemen dardarkari aurretiko apofoniaz, bizkaieraz ohizkoa dena.

<sup>68</sup> XI. atala, 3. ahap.

<sup>69</sup> XI. atala, 2. ahap. *Badatxen* = atxekitzen zain. Ikus Lafon, *Le système*, t. I, 170-172.

<sup>70</sup> XII. atala, 3. ahap.



baitare gerri hersiz  
orotako lehena<sup>71</sup>.

Oihartzun antzekoak *Ederragoari* deituriko atalean damaren oroitzapenak: «Zurekin ezagutze hartzen/ hasiz gero, Ederragoa,/ sendi dizut nitan eihartzen /berzetrako amorioa»<sup>72</sup>.

## VIII. TASUN GORENAK

*Edertasuna* maitearengan gailen izanarren, dama beste *tasun* askoz hornitua egon daiteke oraindik, adibidez, onberatasunez, diskrezioz, zuhurtasunez, adime-nez. Maitaminduak kualitate onenak atxiki ohi dizkio maitatuari. Horren isladapen hurrengo pasarteak:

Hur'ezagutzen duten  
oro haren bertuten  
goresten, eta bertzer  
ari dir'eranzuten<sup>73</sup>.

Ezi aspaldi du haren  
merez handiaren  
ezagutza dudala...<sup>74</sup>.

Ondorengo bi ahapaldietan, alde batetik, *prestutasuna* eta *ontasuna* (Lafonek *sagesse*, *bonté* gisa itzuliak) aipatzen dira, eta, bestetik, *izpiritua* eta *adimena* (*esprit*, *intelligence*). Hona lehenengo kasua:

Zeren baita han haitu,  
eta zeren garhaitu  
prestuz et'ontartzunez  
bertze nesk'oro baitu<sup>75</sup>.

Eta *izpiritu* eta *adimen* gorenak aipatuz:

Minzatzte'ederretako,  
spritu are hobetako,

<sup>71</sup> XIII. atala, 8. ahap. Ederraz gain, onbidetsua da *Joana* emaztea; horregatik maitearen beste goratarrea: «Egitez horla, sinhetsu, /eder bezain onbidetsu/izanez, aipatua/zirat'ororen ahoetan...» (XIV. atala, 6. ahap.).

<sup>72</sup> Ederragoari III atala, 1 ahap. *Berzetrako* = bestetarako.

<sup>73</sup> XII. atala, 2. ahap. Lafonek frantses itzulpenean: «Tous ceux qui la connaissent ne cessent d'exalter ses qualités et de les proclamer aux autres» («Traduction français...», 17. or.).

<sup>74</sup> XIII. atala, 28. ahap.

<sup>75</sup> XII. atala, 3. ahap. Gaurko euskara arautuan honela litzateke: «Zeren bait da hain hautaturikoa, eta gaintu bait du beste edozein neska prestutasunez eta ontasunez».

adimenduz, eranzun  
nik ezin bezalako<sup>76</sup>.

## IX. MAITASUNAREN DENBORA

Aldia da amodioaren ueña. Maitatzeko aldi oro da on, maitaleak jarrera absolutua, guztizkoa eskatzen baitu. «Eia bada,/ordua da,/ zuretan has ziteen/ ene hartzen»<sup>77</sup>. Guztizkotasun hori gau-egunak eta goiz-arratsak une-aldarteak seinatlatzean (beste eginkizun zenbait «edate-jatean /ebiltze-gelditze» ere ahortzi gabe):

Gau-egun, goiz-arrats...  
zuzaz dizut penamendu  
neure penen luzamendu<sup>78</sup>.

Maitalearen dolua une eta egoera gehienetara luzatzen da. Bestalde, *Xuria* damari, nahiz-eta berandu izan, etortzeko eskatzen dio. Hobe da, beraz, berant hurbiltzea, inoiz ez ailegatzea baino:

Hobe duken ainik ere,  
honki egite', engoiti,  
ezi ez jagoiti.  
Hel akit, berant bad'ere<sup>79</sup>.

*Joana* emaztekiari eskainitako neurtitzetan ere *aspaldi, orano, luzean, neguan* gisako *denborazko* kontzeptuak jokuan. Iraupena eta aldia lotuta, noski:

Zeren nol'ene maite  
ukeiteak iraitte  
baitu, hur'ere agian  
luzean goga daite<sup>80</sup>.

Eta *Ederragoari* deritzan ataleko oin-errepikan edo estribiloan «orai eta sekulakoz /zure nizatetalakoz»<sup>81</sup> delakoa *denborari* atxikita, amodioaren aitortpen absolutu gisa.

<sup>76</sup> XIII. atala, 5. ahap. *Spiritu* = kultismoa, *izpiritu*. Laugarren ahapaldian, beti *Joanari* eskainitako neurtitzetan, *zuhurtzia* eta *jakintasuna* goresten dira: «Zeren dena guzia /baita zeren ber zuhurtzia, /eta jakitarzunez/orozaz gainti utzia» (XIII. atala, 4. ahap.). *Gainti* = gainetik. *Jakitarzuna* = jakinduria.

<sup>77</sup> II. atala, 12. ahap.

<sup>78</sup> VI. atala, 7. ahap. Ordua, gainera, maiteagatik hiltzeko eta bizitzeko tenore aparta da: «Ezi ordu dut jakinsu izan,/hil, ala bizigei nizan» (VII. atala, 7. ahap.).

<sup>79</sup> IX. atala, 4. ahap.

<sup>80</sup> XIII. atala, 30. ahap. Txillardegiren azalpenean: «Zeren, ene maite-ukaiteak iraupena bait du, hura ere luzaroan gogara etor daiteke» (Op. c. 177. or.).

<sup>81</sup> *Ederragoari*, estribiloa. Baita: «Hel zazkit gauger'otian,/heltzekoz zure bizian» (XV. atala, 9. ahap.).

Dударик gabe, *gaua/eguna* kontzeptua errepikatuena aldiaren guztizkotasuna (maitasunari loturik) isladatzeko. Adierazpen hori doluari, jeloskortasunari, amodioaren tenoreari, eskaintzari atxikia egon daiteke. Ikus dezagun pasarte zenbait:

Gauik, egunik,  
eztinak hunik,  
hireki ezpaniz, Argia<sup>82</sup>.

Gauaz, epaizkaz, zur'etxen sartuz  
em'ibiliz, eme hatsartuz<sup>83</sup>.

Hambat nago penatan,  
nik eztakit nolatan,  
gau et'egun gor batek  
naduk'arrenkuratan<sup>84</sup>.

Neurtitzei azken partean erantsiriko maitezko olerkietan ere denboraren kontzeptua nabari, egunaren hiru aldarreak eta gaua aipatuz. Denak maitemindua maitatzeko une proposak dira:

Argitzean, eguerditan,  
arratsean natzano,  
gaua goizak ordaritan  
biharamunt dazano  
zuri huts, et'ez bertzeri  
darraik' ene gogoa...<sup>85</sup>.

## X. ESKARIAK

Eskarien tenorea amodioaren zertzeladetara bideratzen da, arrenkurek, zalantzek, kezkek sorturiko abagaduneak isladatuz. Bihotzari jarrera jeloskor batetik eskeak sortzea normala da. Maitearen itzulera, amodioarekiko jarrera eskusiboa eta damaren erantzuna izanen dira gai ohizkoenak. Jainkoa, bestalde, bitartekotzat hartzen da maiz, Oihenarten alderdi erlijiosoan kontuan edukirik.

Hona adierazpen zenbait. Lehenik Jainkoa bitarteko duten eskariak:

Zein ahal den egiati,  
zuk bezi ehork etziakizu

<sup>82</sup> III. 1. ahap.

<sup>83</sup> V. atala, 5. gn. multzoa

<sup>84</sup> X. atala, 1. ahap. Eta beste pasarte ezagun hau: «Nahiz ezpegi/gauaz ilhargi,/ni zure begi/ederrek argi» (XVI. atala, 1. ahap.).

<sup>85</sup> Beste zenbait olerki, II. ahap. *Biharamunt dazano* = Biharamona den arteraino. Eta ondorengoa: «Mirets ziniro bazeneki/gau et'egun, zein ardura» (*Ederragoari*, 3. ahap.).

bain'engoiti Jainkoagati  
dakidan nik er'egizu<sup>86</sup>.

Tenore bera hurrengoetan:

...Fida niz  
zeruko jaunak, hari gomendaturik  
enuel'utziko net deskonsolaturik<sup>87</sup>.  
Beraz otoi, Jainkoagati,  
lipar, inhar bategati,  
iraitz enezazula<sup>88</sup>.

Azken kasu honetan damari, Jainkoa duelarik lagun, ez arbuiatzea eskatzen dio. Neurtitz erlijiosoetan ere konfiantza bera han-hemen, garaiko jarrera atzemanetz.

Ondorengoetan eskariak jarrera zuzenago bat maiteaganako erantzuna eta makurrera otoituz. «Batzutan, luzez, luzez otoituz,/zure bihotz gogorra goit-huz»<sup>89</sup>.

Eskariak, maiz, topaketa orok isladatzen duen elkarrekikotasunezko giroan azaltzen dira; maiteak maitatua ikusi nahi luke, honen hoztasuna dela oztopo:

Hel zazkit gaurger, otian,  
heltzekoz zure bizian,  
ezpad'en'asperragati  
ezpererik zureagati<sup>90</sup>.

Errepikak eskarien larritasuna adierazten dute, bestetan bezala; horregatik dio «zato, zato sogitera/ba nohake jaukitera»<sup>91</sup>.

Eskariak jarrera definitiboagoa *Joana* emazte zenduarekin zeruan bat egiteko guraria agertzean; poetak ez ditu koblak eta kantuak eginen, negarrak baino, haiek eta maitearekin goian ikusi arte. Hori dela eta, alferrik izanen da koblak eskatzea:

Bad'ez nehor niri obororik  
(eztudan gero egin gogorik)  
eske jar kobl'edo kantore...,

<sup>86</sup> VII. atala, 7. ahap.

<sup>87</sup> VIII. atala, 7. ahap. Azken perpausa kera hurbilago batez litzateke: «Ez nauela utziko arras nahigabeturik». Baita goian aipaturiko «Baletsa Jaungoikoari /har nenzan zerbitzari hark er', eta leriztan/hanbat on zein nik hari!» (XII. atala, 25. ahap.).

<sup>88</sup> XIV. atala, 5. ahap.

<sup>89</sup> V. atala, 3. ahap. Eta damaren errukia eskatuz: «Hel zaizkio, sober' aiduruz, /zugatik hiltzen ari denari, /eta hur' otoi urrikari» (V. atala, azken ahapaldia).

<sup>90</sup> XV. atala, 9. ahap.

<sup>91</sup> XV. atala, 6. ahap. *Jaukitera* = erasotzera. Gorago *bailiotsa* hipotetikoa io aditz sintetikotik.

lupean, air'edo zeruan  
derakustano den lekuan<sup>92</sup>.

Hurrengo ahapaldian «epa itzazu», «edutzazu», «jin dakidizu», «negizu» aditzen bitartez eskari baten antzeko aginduak, perpausa *otoi* delakoaz hasten delarik:

Otoi, otoi ene minak  
gaurgoitik epa itzazu,  
oranoko gaizki eginak  
askitan edutzazu<sup>93</sup>.

## XI. «MEHE», «GURI», «GOXO» EPITETOAK

«Mehe», «guri» eta «goxo» epitetoak amodioaren finezia azaltzera datoz; batzutan, ingurugiro somatiko baten adierazpen huts bezala, bestetan *tasun* izpiritualen azalpen gisa. *Goxo* eta *guri* epitetoak ere antzeko ildotik. Poesia ernazentistaren baliabide literarioetan sartzen dira, besteen artean, epiteko horiek.

*Xuria* damaren edertasun somatikoak deskribatzean ile-adatsa zeta baino leun eta mehegoa dela dio:

Adats ikustekoa,  
aztaleranokoa,  
leunez, baitare mehez,  
zetaren gainekoa<sup>94</sup>.

Kasu honetan «mehe» epitetoari *leun* erasten zaio. Beherago, berriz, lepoa *gozoa* dela dio edozein besarkada emateko:

Lepho arrai miratzeko,  
goxo besarkatzeko<sup>95</sup>.

Poemaren bederatzigarren ahapaldian deskribapen somatikoak «guri» eta «mehe» epitetoen bidez, nahiz eta soin-atal desberdinei atxikia egon. Batean esku-zangoak dira, bestean eriak edo hatzak:

Esku eta zango biak  
xuri bezain guriak,

<sup>92</sup> Ezkontidearen hil-kexua, azken ahapaldia. *Erakustano* = erakusten didano. *Lupean* = lurpean, konposakeran dardarkaria galduz (*lupeko*, *uhalde*, *zuhirin*) hitzetan bezala.

<sup>93</sup> Beste zenbait olerki, II. 5. ahap. *Epa itzazu* = ebaki itzazu; *epai* aditzaren esanahia bera isladagarria *epaile* (juez), *epaitu* (juzgar), *epail* (marzo, mes del corte) hitzetan.

<sup>94</sup> X. atala, 4. ahap.

<sup>95</sup> X. atala, 7. ahap.

erhi mehe, gaineti  
zilharztatu iduriak<sup>96</sup>.

*Beltzarana* damari, eskainitakoan *eme* epitetoa adizlagun bezala, baina ez deskribapen fisiko bati loturik, mintzamenari baino. *Gozo*, berriz, soari atxikitzen zaio. Boskarren ahapaldian *mehe* adierazpen somatikoz. Hona adibideak:

Nol'arrai miratzea  
baitu, eme mintzatzea,  
gozo, gozo ere handi  
da hari behatzea.

Gorputza duelarik  
luzekara, halarik  
xuxen du, et'ezta lodi,  
ez mehe soberarik<sup>97</sup>.

## XII. «ERI», «SENDO»

Batzutan «eri/sendo» antitesiaz, eta bestetan *eri* kontzeptu soilaz, maitasunaren beste erreferentzia eman nahi da. Maitalea *eri* sentitzen da damaren arbuioa, mesprezua eta zapuzketa sumatzean. *Gogoeritu* hitz konposatuaz salatzen du, adibidez, Oihenartek *Argiaren* bihotz-gogortasuna:

Han, ni nigarzu  
ikusiz, hark zu  
gogoeritzen ezpazitu<sup>98</sup>.

Hurrengoetan eritasuna nabarmen «bihotz hunen pitzgarri» esatean, eta osasuna «sendotzen banun, ainziti,/ zeren nuken idoki /halaz osoki»<sup>99</sup> aitortzean. Eritasunak bihotzaren dolua isladatzen du; amodiozko jokaera kiribiltzuen ondorengo egoera:

Zuk hori egiten  
bezan batetan  
naiz eri etziten  
bihotz minetan<sup>100</sup>.

<sup>96</sup> X. atala, 9. ahap. *Erhi* = hatz. *Zilharztatu* = zilarreztatu, zilarrez estali.

<sup>97</sup> XII. atala, 4. eta 5. ahap. *Beltzaranaren* soina, beraz, lodi eta mehearen tarteko gisa estimatzen du. Lehenago *Argiari* zuzendutako neurtitzean «buztan mehearen» delakoaz aritu da, eta, noski, zentzu fisikoan.

<sup>98</sup> IV. atala, 9. ahap.

<sup>99</sup> IX. atala, 4. eta 5. ahap. *Ainziti* = aitzitik, baizik eta.

<sup>100</sup> XVI. atala, 3. ahap.

*Eri/sendo*-aren arteko kontraegoera, oraindik, garbiago amodioaren gutzitokotasuna adieraztean. Damaren jokabideaz eri edo gaiso aurki daiteke:

Zuri huts, et'ez bertzeri  
darraik'ene gogoa,  
zuzaz, nola bait'er'ez eri  
nahiz izan sendoa<sup>101</sup>.

### XIII. SALAKETA

Maitale minduak dama uzurrari salaketak egitea amodiozko jarrera orokorraren beste berezitasuna da. Salaketaren inguruko literatura nabarmen, bai Frantziako trobalarien neurtitzetan, eta bai ondoren darraikion ernazimenduko poetika nagusian. Oihenartek bietatik har zezakeen eragina.

Salaketak adiera jeloskor eta mesprezuzkoa adiera duten pasartetan gordeta. Hurrengo testuak jarrera animiko hori isladagarri, nolabait:

Bana bertze  
ez ikertze  
gaugoitik ukeiteko,  
oradrano  
duzun bano  
ongi niri egiteko<sup>102</sup>.

Neurtitzaren teknika aldetik aipatzekoa hemen Oihenartek bertso-lerro bakoitzean *aa/bb/bb* puntu-eskema bilatu duela, beste ahapaldi gehienetan *aa/b/cc/b* azaltzen den bitartean. O bokaleaz puntu gozoagoa lortzen du, bokale horrek errepika gehiago duelako.

Kexuaren ohiartzun latz bera hurrengoan:

Gero zuzaz  
zeinen luzaz  
ikaturik nagoan,  
eta halaz,  
hambat halaz!  
errekeitu gaxtoan<sup>103</sup>.

<sup>101</sup> Beste zenbait olerki, II, 1 m. *Zuzaz sendoa* = zuk sendatua.

<sup>102</sup> II. atala, 10. ahap.

<sup>103</sup> II. atala, 15. ahap. Hemengo puntu-eskema: *aa/b/aa/b*. *Errekeitu gaxtoan* = portaera gaitzean.

Ildo beretik:

Aldiz naiz latzen,  
bilhatuz batzen,  
ban'ez ber zaitudanean<sup>104</sup>.

Amodioa (diru-ordain denean) benetako maitasun-salketa gisa salatzen da:

Amets, al'egia, d'ote enzuna,  
emaien duzula zur'edertarzuna,  
hon eztaritzozunari,  
moien apur baten sar?<sup>105</sup>.

Bestetan gisa, salaketa paralelismotan bilduta eman daiteke. Beraz, hurbiltasunari urruntasuna dagokio amodiozko arazoetan. Damak urruntzean ahantzi egiten du maitemindua, eta hurbiltzean, berriz, arduraeza eta gaitza azaltzen:

Urruntzen nitzauzunean  
nizaz eztuzu orhitzerik,  
ez, hurrentzen nizanean,  
zein ere den ikertzerik<sup>106</sup>.

#### XIV. DAMAREN ARBUIOA ETA MESPRESUA

Erraza bihurtzen da *arbuioaren* tematika amodiozko neurtitzetan bilatzea. Damaren aldetik jarrera arbuizatzaileak aski nabarmen trobalarien ahoan, eta, ondoren, ernazimenduko poesia zabalean.

Euskal lirika ahozkoaren esparruan ere argi jarrera arbuizatzaile bera. Komeni da Etxepare ere kontutan edukitzea, bere poetikan ertaroko oihartzunak eroso aurki daitezkeelako, eta, prezezki, hemengo kasura egokituak:

Jauna gerthuz hik dadukak porfidia handia.  
Ixil endin nahi nitek jala ene fedia!  
Hitz gutitan adi ezak, nahi baduk, egia:  
hietako eztiadukat gerthuz neure buruya<sup>107</sup>.  
Horrelako banitatez ni segur uztazu;  
probetxurik eztukezu eta zinhets nazazu<sup>108</sup>.

<sup>104</sup> IV. atala, 8. ahap. Egungo euskaran litzateke: «Aldiz latzen naiz zu bilatuz, soilik ez bazaude ere...». *Lafonez*: «Au contraire, j'éprouve une impression pénible quand, à force de vous chercher, je vous rencontre, mais pas seule» («Traduction français...», 9. or.).

<sup>105</sup> VI. atala, 1. ahap. *Moien apur bat* = dirubide txiki bat. *Eztaritzozunari* = eritzi ez zaizunari. Baita: «Eztuzu zer uka, zarel'ogenduru,/ ez har ait'amer nahia stakuru» (Ibidem, 3. ahap.).

<sup>106</sup> VII. atala, 5. ahap. *Ikertzerik* = ardurarik, begiramendurik. *Lafonez* «Soin, bon traitement...» («Notes pour...», 65. or.).

<sup>107</sup> B. Etxepare, *Olerkiak*, 142. or.

<sup>108</sup> B. Etxepare, ibidem.



Oihenarten neurtitzetan arbuioa nabarmen, eta *Zuria* eta *Beltzarana* damen kasuetan, bereziki. Behin eta berriz lamentatzen da poeta damaren jarrera hotz eta zapuztzaileaz. *Mesprezuaren* tematika, bestalde, *arbuioarekin* osatuta, biek lotuta daudelakoz. Dena den, *arbuioaren* islada Oihenarten neurtitzetan nagusia-goa, itxuraz.

Ikus dezagun testu zenbait. Lehenik *arbuioari* dagozkionez gorago emana:

Gero zuzaz  
zeinen luzaz  
ukaturik nagoan,  
eta halaz,  
hambat alaz!  
errekeitu gaxtoan<sup>109</sup>.

Hemengo «zeinen luzaz ukaturik nagoan» delakoak kexu baten adierazpena; erantzunik ez duen damaren zain egon da poeta (14gn. ahapaldia). Damaren arbuioa, bestalde, soa ukatuz ager daiteke, bihotzaren jarrera/ aztertzaile gisa («Ala badere/soz behin ere/etzindezke jar nigana»)<sup>110</sup>.

*Ireizi* aditzaren bitartez ere arbuioa isladatzen da. Poetak maitearekiko portaera alderantzizkoa du:

Nik eztut ehor maite zu beizi.  
Zuk zeren nahi nuzu ireizi?<sup>111</sup>.

Baita:

Hezaz oradrano iraitzi  
ikusirik nauzula<sup>112</sup>.

Ildo beretik damak galaiari maitatzeari *uzteko* agindua ematen dionean:

Utzi zitzadan manuz baitzauzat,  
etxekiterago eniz ausat<sup>113</sup>.

Arbuioa ere damak poetari eskaturikoa uko dagionean:

Gero zail edireiten zitut  
eske gehiago nauzuno,  
eta jartzen zauzt erranez  
eztezakezul'eman, ez<sup>114</sup>.

<sup>109</sup> II. atala, 15. ahap. *Errekeitu gaxtoan* = portaera gaitzean.

<sup>110</sup> IV. atala, 5. ahap. Lafonek: «Jamais pourtant vous ne dirigeriez vos regards vers moi».

<sup>111</sup> V. atala, 1. ahap. *Ireizi/iraizi* aditza jatorriz etxekoa dugun bitartean, *arbiuatu* mailebua da, hots, lat. *repudiaretik* datorren *arbohuiä* gaskoina, dardarkari aurretiko protetikaz eta bokalearteko herskariaren ozendura berantaz edo erromanikoaz. Cfr. Luis M. Mujika, *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*, 157. or., M. Agud, A. Tovar, *Diccionario etimológico vasco*, I, 908.

<sup>112</sup> Beste zenbait olerki, 4. ahap..

<sup>113</sup> V. atala, 4gn. multzoa. *Manuz baitzauzat* = agintzen bezala ezartzen zatzait. *Beltxaranari* eskainitako neurtitz batean (XI. atala, 3. ahap.) *higu* hitza *gorroto* gisa, beti *arbuioaren* hurbiletik.

<sup>114</sup> Beste zenbait olerki, I, 1 ahap. *Nauzuno* = nauzun arteraino. *Jartzen zauzt* = ezartzen zatzait.

*Ederragoari* deituriko neurtitzetan salaketa bera, andereak nekez aurki baitezake bizikiago maiteko duen beste gizakirik. Ia olerki osoa kezu baten azalpen da, bere paradigmaz eta guzti. Kasu honetan *uko* hitza:

Zuk niri uko badagidazu,  
nik zuri galde bezambat,  
eridenik eztadukazu  
nik nola maita zitzan bat<sup>115</sup>.

Jokabide hain deitoragarriak poetaren protesta merezi du, dama gordeka, itzurika eta iheska baitabil maitaminduarekin, topo egin ordez («Aitziti ni ekus-eta gorde /nahiz zabilz'et'itzuri; /eta hunki-jin (*ongi-etorri*) erran orde /ari zitzauzat belzuri») <sup>116</sup>.

Lantu bera nekeak damari egozten dizkionean, eskergabetasuna salatuz:

Ban'ezdeustzat zuk dadukazu  
nik neke hartzen dudana,  
et'eskerrik ezterautazu  
jiteaz hala zugana<sup>117</sup>.

Mesprezuaren gaia ere arbuioaren hurbilekoa, biak lotuta baitaude amodiozko jarreretan. Etxepareren kasuan nabarmen sentimendu bera.

Oihenartek *phuztatze* hitza eskaintzen digu «mesprezua» eta «arbuioa» adieraziz bere lehenengoetako neurtitz batean:

Bana zoaz,  
laurherroaz,  
ene'erranak phuztatze<sup>118</sup>.

Maitaleak bihotz-berotasuna dio damari, baino hark ez dio gogorik ordainetan. «Zu zerk hain haitu/egiten zaitu/nizaz ez gogaratzera?» <sup>119</sup>. Anderekiak poetaren ardura osoa berarengan duela jakin arren, ez dio arrenkurarik jartzen:

Erran baderaukat ezi  
oro harena naizala,  
nehor ere, hur bezi,

<sup>115</sup> Ederragoari, 6. ahap. *Eriden* = aurkitu.

<sup>116</sup> Beste zenbait olerki, V, 8. ahap. Logikoki, arbuioak eskergabekeria azaltzen du damaren aldetik, eta gaitzeskarri da. Oihenartek lazki dio: «Alabana./enegana, orano eia zurerik,(heldu denez/deus ogenez/eta gaitzez bertzerik? (II. atala, 4. ahap.). Lafonek *ogenez* eta *gaitzez* «mechanchetés» gisa itzultzen ditu (Art. c. 5. or.). Hurrengoan garbiago eskergabekeriaren salaketa: «Elkoit dakit elkorra, /esker gabe, gotorra, / del'enetzat, bait'ere/ harri bezain gogorra» (X. atala, 11. ahap.). Ondorengoan dama iheska ageri da: «Zeren nik zuri/emanik bahi/bihotz', itzuri/baitzauzki nahi» (XV atala, 8 ahap.).

<sup>117</sup> Beste zenbait olerki, V. 7. ahap.

<sup>118</sup> II. atala, 8. ahap. *Phuzta* = mesprezatu, arbuiatu (Txillardegi, op. c.133 or.). IV. atalean *berezi* (apartatu) hitza mesprezuzko jarrera gisa uler daiteke: «Zuk ni zureti (aiher naiz) beti/nadukazu berezirik» (IV. atala, 4. ahap.).

<sup>119</sup> IV. atala, 10. ahap. *Haitu* = harroxko, anpurus.

onhetsirik eztudala,  
bana horregatik hura  
ezta nizaz arregura<sup>120</sup>.

*Xuriari* ere kexu bera behar bezala«axolati» ez dela salatzean; ez du ardurarik hainbeste maitatu duena saminduratik ateratzeko. Beraz, bestetan bezala, mesprezutik jasoriko protesta:

Bena hura, hargati,  
nizaz ezt' axolati,  
et'enu itoiten, berak  
sartu nauen phenati<sup>121</sup>.

Etzintezkea jagoiti unha  
ene hain gaizki tratatzez?  
Beti zuzaz ezin enzuna  
lan duketa deitoratzez?<sup>122</sup>.

## XV. JELOSKORTASUNA

Amodiozko lirikan hau da gairik oparoenatekoa, bai euskal esparruan, eta bai kanpotikoan. Ertaro osoa horren lekukoa da. Aski da Probentzako trobalarien lirika aztertzea. Beste hainbeste Gaztela, Italia ala Portugalgoa.

Etxeparerengan maita-joku gisa azaltzen da. Gainera, jeloskortasuna, maiz, gorrotoa, higuina eta malurarekin lotzen da.

Oihenartengan jeloskortasuna, bereziki, *Argia* eta *Beltxaranaren* kasuetan:

Gauik, egunik,  
eztinak hunik,  
hireki ezpaniz, *Argia*<sup>123</sup>.

Maitaleak ezin du jasan dama ikusi gabe, eta gurari horretan ez du etengabetasunik, ezen eta «gauik, egunik,/eztinat hunik» dio. Jarrera jeloskorra, benetan, *Argia* damari erakutsia.

Poetak ezin du itxaron. Toki sekretuan maitamindua noiz aurkituko urduri dago, desoseguz dago. Topaketaren aldia irrika biziz espero du:

<sup>120</sup> VII. atala, 2. ahap. *Arrenkura* = ardura, interesa. *Erran baderaukat* = esan badiot. «Arrenkura» *rencura* erromanikotik. Eta hurrengoetan: «Ez behin-ere gogorik, /niri hunki egitekorik» (VII. atala, 5. ahap.). «Ban', ene zori gaitzetan,/ enaiz orano deusetan» (XV. atala, 2. ahap.).

<sup>121</sup> X. atala, 14. ahap. Atsotizetan *axol/* hitza, 226, 252.

<sup>122</sup> Beste zenbait olerki, V 1. ahap.

<sup>123</sup> III. atala, 1. ahap.

Beraz higanik  
 egin, jadanik,  
 noiz nakidina dakidan  
 jin...<sup>124</sup>.

Elkarrikustekaren toki aproposena, ikusia dugunez, «gorde-lekua» izanen da, «han bat akidan» (Ibidem).

Topaketa-ezaren sentimenduak malura eta gorrotoa sortzen ditu maitamin-duarengan. Bizia aspergarri gertatzen zaio maiterik gabe; haren gabezia herio da («Betor, betor herioa, /bizi'ne hastioa»)<sup>125</sup>. Hori dela eta, maitatu orde, gorrotatu eginen du («Mait'orde hig'ukena»)<sup>126</sup>. Jeloskorrari gehien mintzen diona dama sekretuan ez ikustea da. Guztizkotasun eskusibozkoa jarrera jeloskorraren eztena:

Aldiz naiz latzen,  
 bilhatuz batzen,  
 ban'ber ez zaitudanean<sup>127</sup>.

Susmoak, errezeloak eta ezmezeak samaldan datozkio maitamindurari. Batzuek dama, oraindik, maitalearengana bil daitekeela diote, besteek, ordea, ezetz:

Nitan gainen gudukatzen;  
 batak etzitukedala,  
 baietz bertzeak diostala<sup>128</sup>.

Barneko ezinegonaren tenorea isladatzen digu biziki hurrengo perpausak. Bertan poetak gauzak argitzeko guraria azaltzen du, presa du. Bat ala bestea hautatu beharrean da:

Orain jagoiti minzatzekoz  
 minza gaitezen garbiki,  
 zuk nigatik deus egitekoz  
 egin ezazu gaiziki...<sup>129</sup>.

<sup>124</sup> III. atala, 8. ahap. *Nakidina* aditz-formulaz. Ikus *Lafon*, Le système du verbe basque au xv<sup>e</sup> siècle t. II, 34-35, 45.

<sup>125</sup> VI. atala, 9. ahap.

<sup>126</sup> XI. atala, 3. ahap. Dena den, *Joanari* eskainitako neurtitzetan garbi arbuatuarren errua bere gain hartuko duela: «Banau er'irraiziko /eztut ez gaitzetsiko /baizik ogen guzia (nihaurtar' egotziko» (XIII. atala, 27. ahap.). Baita: «Ban'alaz! hambat dizut hugu (gorroto) /zureki mintzatu ezina» (Ederragoari, 1 ahap.).

<sup>127</sup> IV. atala, 8. ahap. *Ber* = bakarrik. *Lafonek*: «Au contraire, j'éprouve une impression pénible quand, à force de vous chercher, mais pas seule...» (Art. c., 9 o.).

<sup>128</sup> VII. atala, 7. ahap. *Etzitukedala* = izango ez zaitudala, «que je ne peux pas vous avoir» (*Lafon*, «Traduction française...», 12 or.).

<sup>129</sup> Beste zenbait olerki, I, 3 ahap. *Gaiziki* = azkar, berehala, fr. promptement (*Lafon*).

## XVI. GOGORKERIA, GORRERIA

Erdi Aro eta errenazimenduko poesiak ere dama uzcurraren gogorkeria salatuko du; arbuioak sortzen duen saminak gogorkeriaren eta gorrieriaren salaketa merezi du. Tenore horretako sorketa anitz garaiko poesia ernazentistan Frantzian, Espainian, Italian, eta abar. Frantziako eragina esperatzekoa zen Oihenarten kasuan. Hurbilago, Etxepareren neurtitzetan damaren jarrera gogorrezko aireak ez dira falta.

Oihenartengan, lehenik, *gorrieriazko* aipuak ikusiko ditugu, nahiz eta, gehienetan *gor* eta *gogor* kontzeptuak baturik azaldu:

Bana zer hobe, zuk gorreti  
badagidazu zur'aldeti?  
Bana zer hobe, zuk gorreti  
badagidazu horla beti?<sup>130</sup>

Hurrengoan *gor* eta *gogor* epitetoak batean bilduta; damaren jarrera hotza salatzen da:

Zuzaz bertzerik  
nehor maiterik  
eztudalarik herrian,  
zu bezain gorrik,  
ez hain gogorrik  
eztudala d'agerrian<sup>131</sup>.

Ondorengoan *gogor* epitetoa *gotor* delakoarekin ordezkutzen du, *gor* kausagatik, nahiz eta maitatuak *gotor* eta *gor* jardun:

Aspaldi neure gogara  
libertatez biz'izanik...,  
gotor eta gor izatez  
galdu nahi nuen batez<sup>132</sup>.

Gortasunaren etengabetasuna isladaturik hurrengoan:

Hanbat nago penatan,  
nik eztakit nolatan,  
gau et'egun gor batek  
naduk'arrenkuratan<sup>133</sup>.

<sup>130</sup> I. atala, 1. ahap. *Badagidazu* = egiten badidazu. *Horla* = horrela. Azentuaren eraginez erori bide da atzetonika, zubereran doinuak duen azkartasunagatik.

<sup>131</sup> IV. atala, 1. ahap.

<sup>132</sup> VII. atala, 1. ahap.

<sup>133</sup> X. atala, 1. ahap.

Salaketa, oraindik, gaitzagoa damaren jarrera, gotorra ez ezik, *elkorra eta eskergabea* denean, eta, azken finean, harri bat bezain *gogorra*:

Elkoit dakit elkorra,  
esker gabe, gotorra,  
del'enezat, bait'are  
harri bezain gogorra<sup>134</sup>.

*Joana* emaztekiaren jarreretan gorrieriak ez du zentzu gaitza, ona baino, bere amodioak besteenganako ixtura azaltzen duelako:

Aldiz bi beharriak  
xuri miragarriak  
saldoa maitariri  
gorheritan jarriak<sup>135</sup>.

Hemengo aipamena *Joanaren* fisikoa deskribatzean, hots, belarrien lerdentasuna. Oihenartek, maitaminduaren fisiko lerdena ez ezik, haren jarrera eskusiboa goratzen du; bera ez den beste edozeinekiko gorra da *Joana*.

Azkeneko maita-neurtitzetan gortasuna antitesietan bilduta *gortharzunga* (*goritasuna* = ardor) eta *gortharzunga* (gorreria) artean jokua eginez, lehenengoan bigarrengoaren kontraesana ematen delarik:

Nik gortharzun, zuk gortharzun,  
derakuskegu elkarri,  
biek bardin bermertarzun  
dugu hetan ezarri<sup>136</sup>.

Kexu baten isladapena hurrengoan ere:

Enezazula gal gorrez,  
kalte jin lakidizu,  
bana galde nauzun horrez  
ukenduru negizu<sup>137</sup>.

Ondorengo adibidetan *gotor* eta *gogor* epitetoak azalduko zaizkigu. Goi-koen arabera, gehienetan, maitale hotzaren jarrera salakizun, amodioaren alorrean kontrajarrerak areagotuz.

<sup>134</sup> X. atala, 11. ahap. *Elkoit* = bakarrik. *Elkorra* = lehorra.

<sup>135</sup> XIII. atala, 12. ahap. *Saldo* = samalda, multzoa. *Gorheritan* inexibo ezmugatuan, — *eri* atzizkiak *eritasuna* adierazten duelarik *sugurreri*, *itsueri*, *urguneri* hitzetan bezala. Ikus Lafon «*Notes pour...*», 78-79. or.

<sup>136</sup> Beste zenbait olerki, II. 3. Lafonek pasartea honela itzultzen du: «Je me montre ardent (*goritik abiatuta*), et nous sourde (*goretik abiatuta*): telle est notre attitude mutuelle. Nous avons mis deux une égale opiniâtreté» (*Traduction française des poésies d'Oihenart*, 33. or.).

<sup>137</sup> Beste zenbait olerki II. 5. ahap. *Jin lakidizu* = etor lekizuke. *Negizu* = egin nazazu.

Hanbat beti  
gotorreti  
egiten derautazu<sup>138</sup>.

Batzutan, luzez, luzez otoituz,  
zure bihotz gogorra goithuz,  
norabait jitez hitz badaidazu,  
hur'ere ger'eztadukazu<sup>139</sup>.

*Beltxaranari* eskainitako neurtitzetan kexu garratza edertasunak ez duelako amodiozko ordainik bihotzean. Gogorkeria azaltzen dio nagusiki:

Zer probetxu edertarzunga  
da hire gorputzean,  
tink bihotzean  
badatxen gogortarzunga?<sup>140</sup>

Solas gaitz baten andanan, protesta bera hurrengo ahapaldian ere maitearen bihotz-gogorkeria dela eta:

Izterbegia minzatzen  
delakoz guzaz, kexatzen  
hark zaitu, hanti datorra  
zure niganat gogorra<sup>141</sup>.

Hemen *gogorra* sustantibaturik, *gogorra* hitza (izenlagunezkoa) *datorra* aditzarekin puntua egiteko egokiagoa izaki.

## XVIII. SAMINA, PENA

Amodiozko poesietan beste tematika errepikakorra samina eta dolorearekin loturikoa da. Noski, arbuio eta mesprezuzko jokabideekin erlazionatzen da, ezen eta maitaminduaren ukoak eta ihesak samina sortzen du maitearengan. Alde anitz saminak Oihenarten neurtitzetan. Arbuioaren mende dagoen sentimendu hau, behar bada, adierazkorrena:

Niri bai baten erraitera  
etzenthozke ehoiz ere?  
Orai, zure minez hiltzera  
nohela, ikusiz berere<sup>142</sup>.

<sup>138</sup> II. atala, 5. ahap.

<sup>139</sup> V. atala, 3. ahap. *Goithuz* = garaituz, gaintituz. *Jitez* = etorritz.

<sup>140</sup> XI. atala, 2. ahap. *Badatxen* = etxekitzen zain, femeninozko aditza. Ikus Lafon, *Système*, I, 170-172.

<sup>141</sup> XV. atala, 4. ahap. *Izterbegi* = etsai, arerio. *Minzatzen* = mintzatzen, kasu honetan, beste askotan bezala, afrikaziorik gabeko NZ taldea.

<sup>142</sup> I. atala, 7. ahap. *Nohela* = nohala.

Saminezko aitopena maitatuaren jokabide hotzetik dator. Damaren jarrera deitoragarria da poetarentzat.

*Xuria* damari zuzenduriko lehen ahalpaldian garden bihotzak sentitzen duen zauria, ukoak suposatzen dizkion tragazak edo geziak:

Berritzen ar'iz, Xuria,  
nitan, egun guzietz,  
noizten begietz  
egin erautan zauria;  
et'ene bihotz gaxoak  
higanik, maita-sari,  
herskailu ordari,  
zitin tragaza-xiloak<sup>143</sup>.

*Tragaza* edo gezi-zuloak «maita-sari» ironikoak dira, bihotzean «zauria» sortzen dutenak. Esan beharrik ez dago, *geziaren* irudia ernazimenduko poesian ohizkoa zela, Oihenarten beste *perla*, *esne*, *urte*, *zilar*, *kristal*, *korral* gisakoak bezala.

Maitalearen bihotzak samin biziagoa du, altzairuz, burdinez eta berunez ordeztu, haragiz eratu baitago. Kontraposizioa, beraz, nabarmen «eztun altzeiru, ez burdina,/ez-eta berun hotza, /ene bihotza./ Ban'aragiz dun egina»<sup>144</sup> dioenean. Samina, bestalde, arbuioak ez beste, gaiztakeriak sortu du. Maitalea ezin da utzi «ehor gaizki tratatzez irabazi?». «Gaizkia»<sup>145</sup> maitale gorraren ondorioa da («Han erasten/zerik hasten/bainaiz ene gaizkiaz»)<sup>146</sup>. Ildo beretik ere: «Alabana,/enegana.../heldu denez/deus ogenez,/eta gaitzez bertzerik».

Erlazio hain gaitzak penaz beterik daude. Penak ikuspegi zabala Oihenarten poesian erantzun txar eta eskergabetasunaren ondorio bezala. Batzutan, pena nolabaiteko masokismoz onartzen da:

Non ere, noreki ere bainiz,  
pena dut zutan pensatzez;  
hal'ere, hanbat neur'etsai niz,  
laket niz hortan penatzez<sup>147</sup>.

Samina, bestalde, jeloskortasunarekin atxikita, damak ez baitio maitaleari fideltasunik, ez eta erantzunik, beste amorante bat duelako:

<sup>143</sup> IX. atala, 1. ahap. *Herskailu* = zauri-oihal. *Tragaza* = gezia, Cfr. *Txillardegi*, op. c. 157 or.

<sup>144</sup> IX. atala, 2. ahap.

<sup>145</sup> VIII. atala, 4. ahap. Baita hurrengo onhestea arbuioari kontrajarrit: «Hezaz oradrano iraitzi,/ikusirik nuzula,/orai onhestea gaitzi/dakit dakidizula» (Beste zenbait olerki, II. 4. ahap.).

<sup>146</sup> II. atala, 7. ahap. Egungo euskaran honela adierazia litzateke: «Han nire gaitzaz erasten hasten naizelarik...».

<sup>147</sup> I. atala, 4. ahap. Maitalearen topaketak, ordea, samina sor dezake: «Noiz ere batzen baitzitzautzat/ bien iragaitean,/minak zatiz arhintzen zautzat,/zuri bi hitz erraitean...» (Ibidem, 5. ahap.).



Aldiz naiz latzen,  
bilhatuz batzen,  
ban'ez ber zaitudanean;  
zer gaitz jasaiten  
dudan erraiten  
ezin derauzudanean<sup>148</sup>.

Erantzun-eza, maiz, antitesietan biltzen da, poetak hurbil uste zuena urrun baitago, maitaminduari maitea kentzen baitzaio:

Ikus jende hunak, ikus ene pena,  
altxatzen darote nik nuen maitena;  
hurren uste nuenean,  
haur dakusat urrunean<sup>149</sup>.

Pena hori iraupen handikoa da, gau t'egun luzaturikoa bihotza arrenkuraz utzirik («Hambat nago penata,/ nik eztakik nolatan,/ gau et'egun gor batek/naduk' arrenkuratan»)<sup>150</sup>.

Poetak damarengan samin bera sortarazi nahi luke, amodioak eskatzen duen elkarrekikotasunaz hobeto jabetzearren. Kexutan bilduta dio:

Kausit ahal baneza  
nombait berhez-berheza,  
hunl'ene penatzea  
baka bide baileza<sup>151</sup>.

Poetak ezin du onatu, ez eta ulertu, maitearen ezkututzea; bihotza eri uzten dio, penetan itoa. «Zuk hori egiten/bezambatetan,/ naiz eri etziten / bihotz minetan»<sup>152</sup>. *Gorra* eta *eria* kontzeptuak aztertzean hemengo tematika bera, azpi-hari bezala.

Poetaren azkenetako kexua saminaren luzapenarena da. Heldu da garaia doluak albo batera uzteko, damaren onespina lortuz:

Otoi, otoi, ene minak  
gaurgoitik epa itzazu,  
oranoko gaizki eginak  
askitan edutzazu<sup>153</sup>.

<sup>148</sup> IV. atala, 8. ahap. «Aldiz naiz latzen» Lafonek «je suis impressionné» gisa itzultzen du («Notes pour...», 68. or.).

<sup>149</sup> VI. atala, 6. ahap. Penak zalantzetan biltzen dira, maiz, maitaleak errezeloa baitu doluak kexua sor dezakeenarena: «Ene beti honlakatzez,/ edo berur'ene penez/nozpait kexa laiteenez» (VII. atala, 3. m). Egungo euskaran honela moldatuko luke Txillardegik: «Inoiz bera ene penez eta honela jokatzez ez ote denez kexatuko» (Ibidem, 153. or.).

<sup>150</sup> X. atala, 1. ahap.

<sup>151</sup> XI. atala, 15. ahap. Testuko hitz zenbait: *baka* = ordaindu, lat. *pacare*-tik. *Kausit* = gertatu. *Berhez-berheza* = bakar-bakarrik.

<sup>152</sup> Ikus Lafon, *Notes pour...*, 74. or.

<sup>153</sup> Beste zenbait olerki II. 5. ahap. *Epa itzazu* = ebaki itzazu. *Askitan edutzazu* = nahikotzat eduki itzazu.

Ohizkoa denez, saminak negarrak eta malkoak sortzen ditu sufritzen duenaren bihotzean. Negar dagi maitaleak maitatu behar lukenaren hoztasuna eta arbuioa atzematean:

Edo zoriak  
nombait, bi-biak,  
noiz ere heltzen baikitu,  
han, ni nigarzu  
ikusiz, hark zu  
gogoeritzen ezpazitu<sup>154</sup>.

Hildo beretik hurrengoa ere:

Kexeri, deitore, nigar-harakiak,  
hek ene baraskal, auhal-jakiak... <sup>155</sup>.

Penarekin elkartzen da maluraren tematika. Maitale arbuiatuak zorigaitzaren esperientzia latza du, damak ez baitio hurbiltzen uzten eihagoraka: «Zuk heiagora /egiten duzu, ni hautemanik, /et'ordu hartan, gaxoa nik,/leioti jauziz, ohoin'iduri,/hilpenan behar dut itzuri»<sup>156</sup>. Zuzenkiago, oraindik, ondorengo kexua: «Ehon erakutsiko zaita/anderaurekin, ez eta neskatorik,/ ni nizan bezain zori gaitzetakorik?»<sup>157</sup>.

## XVIII. GONPARAKETAK

Gonparaketa da literaturan erabili ohi den beste baliabidetako bat, bai literatura klasikoan eta bai gaurkoan. Gonparaketa batean adierazpen-sareak metaforetan baino gardenagoak gertatzen dira *iduri*, *bezala*, *lako*, *gisako* juntagailuen bitartez. Oihenartengan *bezain* /*itxuraz*/*nola* gisako juntagailuak. Batzutan, juntagailua falta da, eta orduan irudia metafora bilaka daiteke. Hurrengoan *zerik* esplikatiboak gonparatiboaren funtzioa bete bide du:

Zerik inhara  
naiteeno akit  
noa horra, hara,  
nor' ezpaitakit<sup>158</sup>.

<sup>154</sup> IV. atala, 9. ahap. *Gogoeritzen* = arimaz gaisotzen. Hitz konposatu egokia. *Nigarzu* = negarti; adjetiboetan —*su* atzizki ugaritzailera hegoaldeko —*tsuren* (*negartsu*, *euritsu*, *maitatsu*) ordezt, frikazioz. Dena den, Hegoaldean *mukizu* eta *kakazu* formulak ere ezagunak. Gorago *zazpazu* (II. 5. ahap.).

<sup>155</sup> VI atala, 8. ahap. *Auhal-jakiak* = afal-jakiak. *Nigar-berakiak* = negar irakinaf. Baita: «Nik nigarrek, zinkuriak/ene bizi-lagunak,/zuk zuriak belzuriak,/poru, handitarzunak» (Beste zenbait olerki, II. 4. ahap.).

<sup>156</sup> V. atala, 5. ahap.

<sup>157</sup> VIII. atala, 1. ahap.

<sup>158</sup> XVI. atala, 5. ahap. *Akit naiteeno* = akitu, nekatu artean.

Hemen poetak bere burua *enaratzat* (golondrina) dauka esplikazio bidez. Hurrengoan, ordea, juntagailu erkatzailea zuzen:

Margarita,  
ba daidita  
othe huts zin egitez,  
begiz urdin  
bezain gordin  
zarela zu egitez?<sup>159</sup>.

Erkaketa sugerigarria damaren eitea begi urdinekin konparatuz. Hurrengoan, berriz, poeta *ilhagina* eta *betzainarekin* erkatuta: «Baninz bezain/zembait betzain/edo ilhagin zarpazu»<sup>160</sup>.

Amodio jeloskor eta segitzailearen alorrean V. ataleko azken ahapaldia dugu aberatsena; bertan esne eulitsua, sagar harjoa, haur «zakarzia» eta «pikot orbainez» delakoekin gonparaketak. Beraz, lau gonparaketa edertasun gaitza isladatzeko medio:

Ainziti, ederrik gaitz dena, duzu  
berhala, nol' ezne uluzu  
denean, edo sagarra harzu,  
haur ederra buru zakarzu;  
edo anderauren begitartea,  
pikot orbainez net bethea<sup>161</sup>.

Ederdura fisikoak ere sortzen ditu beste irudiak, adibidez, ukabil eta besoaren kasuan. Bestetan, ordea, konparaketarik ez propioki, irudi sinbolikoa inolako juntagailurik gabe ematen delako:

Oina, kaizuz, zolako?  
Ikusten gogarako:  
ukaraia, besoa,  
arhan-lil' itxurako<sup>162</sup>.

<sup>159</sup> II. atala, 1. ahap. *Daidita* = egin aditzaren sintetikoa. Cfr. XIII, 60.

<sup>160</sup> II. atala, 5. ahap. *Ilhagin* = cardador de lana. Erbia zakurraren atzetiko irudia dakar hurrengoan maitalearen maitaiganako atze-segida adieraziz: «Hora nol'a erbiratzean,/bazterrez bazter,/bethi ere laster/ari naiz zure hatzean» (IV. atala, 6. ahap.). *Zarpazu* —zu atzizkia, ohizko —*tsu* afrikariaren ordez.

<sup>161</sup> V. atala, azken ahapaldia. *Ulluzu* = eulitsu. *Pikot'orbainez* = nafarrerria orbainez. *Anderawren* hitzaz ikus *Lafon* «Notes pour...», 71. or.

<sup>162</sup> X. atala, 8. ahap. Gure lirika zaharreko erreferentzia begetalak ikus: *Luis M. Mujika*, Euskal lirika tradizionala, t. III, 513-533 or. Ondorengoan, berriz, konparaketa maila sozialaren esparruan: «Orduan pausu nuke, eta/ nihaur neduke,/handiago ezi baninz/Baroin edo Duke» (XIII. atala, 26. ahap.). Eskua ere arraultze batekin erkatuta: «Eskua zuri, nola/arraulza berri erruna» (XII. atala, 10. ahap.). Eta begiak *lasto* gisa: «Begi leinhuru goriek/lasto-legez garturik» (Beste zenbait olerki, II. 2. ahap.).

Gonparaketaren lotura hemen, beraz, arlo botanikoaren erreferentzian, hots, *aran-lorea*-ren aipuan, lirika zaharrean hain ohizkoa den naturarekiko adierazpen begetaleen andanan. *Mertzika, mihilua, otea, lizarra, sagarra, iratzea* ildo horretakoak dira.

## XIX. ANTITESIAK

Amodioaren kontrajarrerak argitan jarriz, Oihenarten neurtitzetan antitesi anitz, *hotz/bero, hurbil/urrun, uda/negu, itsu/argi* gisakoak. Gehienetan, maitale mesprezatzaillearen jarrerak argitzera datoz.

Antitesi horietan, maiz, amodio ez-erantzun baten kexuak, jarrera arbuia-tzaile eta zapuzketa eskergabe baten nolabaiteko adierazpenak. Hona kasu zenbait:

Geroz oihana lilitu da  
bait'ar'orstatu lauretan  
ud'ere negu, negi'uda  
gerthatu da haimbertzetan<sup>163</sup>.

*Maitenaren gal-kexua* deituriko atalean agertzen diren antitesi garbienak *ebiltze/gelditze, jaikite/etzate, herio/bizia, hotzenago/gortzenago, urruntzen/hurrentzen, hil/bizi* gisakoak. Dena, noski, amodioaren zertzelada korapilotsuetan sartzen da:

### *Hil/bizi:*

...Ezi zu bazaud'eneki,  
ni bizi eta hil nahi nuzu zureki<sup>164</sup>.  
Ezi ordu dut jakinsu izan,  
hil, ala bizigei nizan<sup>165</sup>.

### *Herioa/bizia:*

Behar dudan gero zutzaz net etsitu,  
et'esteiaritzat lurtean gelditu,  
betor, betor herioa,  
bizi'ene hastioa<sup>166</sup>.  
Hurren uste nuenean,  
haur dakusat urrunean<sup>167</sup>.

<sup>163</sup> I. atala, 2. ahap. Ildo beretik besteok: «Hireki ezpaniz/itsu hutsa niz,/zeren bai hiz en'argia» (III. atala, 1. ahap.), «...Zure artatzez,/zerbitzatzez,/et'onhestez kampora? Alabana,/enegana.../deus ogenez,/eta gaitzez bertzerik?» Azken kasu honetan bi jarreraren kontraezarpena, *onhestez/gaitzez* (II. atala, 3. eta 4. ahap.).

<sup>164</sup> VIII. atala, 6. ahap.

<sup>165</sup> VII. atala, 7. ahap. Txillardegik eskaintzen duen kera gaurkotuan: «Ezen garaia bait da, hilko ala biziko ote naizen jakin dezadan». *Ibidem*, 155. or.

<sup>166</sup> VI. atala, 9. ahap. *Net* = biziki, erruz, hitz gaskoina.

<sup>167</sup> VI. atala, 6. ahap. *Dakusat* = ikusten dut.

*Antitesi anitzak:*

Gau-egun, goi-arrats, edate-jatean  
ebiltze-gelditze, jaikite-etzatean,  
zuzaz dizut penamendu  
neure penen luzamendu<sup>168</sup>.

*Maite/gorroto:*

Aldiz dun maitariaren  
mait'orde hig'ukena,  
eder eztena  
hi bezalako ederraren<sup>169</sup>.

*Heldua/joana:*

Haren izena Joana,  
ez ote gaizki emana?  
Ezi orai heldu dena  
nola lizate joana<sup>170</sup>.  
Eztitzauzte hurbiltu, ez heldu  
aitziti zitzauzte gibelu<sup>171</sup>

*Jabe/nerabe:*

Aspaldi nola zuen norhabe  
izan bainaiz, zuek ene jabe<sup>172</sup>.

*Hotza/beroa:*

Hotzak beroa du nitan,  
urak sui'eraikiten<sup>173</sup>.  
Elhurak alabadere  
naduka ni, hotz badere,  
errerik bihotzean<sup>174</sup>.

<sup>168</sup> VI. atala, 7. ahap.

<sup>169</sup> XI. atala, 3. ahap. *Hig'ukena* = *bigu* edo gorroto ukana. *Ukena* balio substantibalez.  
Cfr. *Lafon*, «Notes pour...», 76 or.

<sup>170</sup> XIII. atala, 7. ahap. Hemen antitesiazko jokua *Joana* emaztekiaren izenez baliatuz.  
Hurrengoan *handi/eskas*-en arteko kontraezarpina: «Ezi espaldi du haren/ merezi handiaren/  
ezagutza dudala,/et'ene eskasgoaren» (XIII. 28. ahap.). Baita «Gaua goizak ordaritan/biharamunt  
dazano» (Beste zenbait olerki, II, 1 ahap.).

<sup>171</sup> Ezkontidearen hil-kexua, 3gn. multzoa.

<sup>172</sup> Ibidem, 2gn. multzoa.

<sup>173</sup> XIV. atala, 3. ahap. *Urak sui(a) eraikiten* = urak sua sortzen.

<sup>174</sup> XIV. atala, 2. ahap. Ildo beretik *gortharzuna* = batean *gothor* (duro) eta bestean *gori*  
(incandescente) gisa: «Nik, gotharzun, zuk gorthazun,/derakuskegu elkarri» (Beste zenbait  
olerki, II. 3. ahap.). Lafonen itzulpenean antitesia nabarmen: «Je me montre ardent, et vous  
sourde: telle est notre attitude mutuelle» (Art. c. 44. or.). *Begirada* ezkutapenaren antitesiaz  
«gordatzen... miratzen» dioenean (XVI. atala, 2. ahap.). Baita *iluna/argiaren* kontrajarrera  
«Nahiz ezpegi gauaz ilhargi/ni zure begi/ederrek argi» (XVI. atala, 1. ahap.).

## XX. KOLOREAK

Oihenarten poetikan azaltzen diren aipu kromatiko gehienak zentzu fisiko eta somatikoan daude, hots, *Xuria* eta *Beltzarana* gisako damen soinaren deskribapen gisa. *Xuri* kolorea da geihenik aipatua; gero *xuri-gorri*, *beltzuria* (nahiz-ta *belzuria* hitzak zentzu desberdina eduki, noiz-noiz), eta, ondoren *horia* eta *gorria*. *Urrea* eta *zilarra* ere adierazpen kromatikoak daude, maiz, poesia ernazentistaren ildotik. Ikus ditzagun, lehenik, kolore soilak:

### a) *Zuria*:

Esku eta zango biak  
xuri bezain guriak<sup>175</sup>.  
Ezpainak ba dirudi  
dela koral-isuri,  
hortzak, lepo, bulharra  
elhurra bezain xuri<sup>176</sup>.  
Eskua xuri, nola  
arraulze berri erruna<sup>177</sup>.  
Aldiz bi beharriak  
xuri miragarriak<sup>178</sup>.  
Esku, erhi, et'ahurra,  
hain xuri, zein elhurra<sup>179</sup>.

Komeni da kontuan edukitzea Ertaroan eta Ernazimenduan kolore *zuria* zela onetsiena, *beltzarana*, aldiz, gutietsiagoa. Horren adierazpen hurrengoak: «Aunque soy morena,/blanca yo nací,/guardando el ganado/la color perdí» (*M. Frenk Alatorre*, *Lírica española de tipo popular*, 121. or.), «Blanca me era yo/cuando entré en la siega;/díome el sol,/y ya soy morena» (*Ibidem*, 122 or.)<sup>180</sup>.

Dena den, Oihenartengan *Beltzarana* gaztaroko dama bat delarik baliteke kolore hori hain gutietsia ez izatea; halere, kolore *zuriaren* lehentasuna nabari Oihenarten neurtitzetan ere.

### b) *Horia*:

Buruko bilo hori  
urhea bezain hori<sup>181</sup>.

<sup>175</sup> X. atala, 9. ahap.

<sup>176</sup> XII. atala, 9. ahap.

<sup>177</sup> XII. atala, 10. ahap.

<sup>178</sup> XIII. atala, 21. ahap.

<sup>179</sup> XIII. atala, 21. ahap.

<sup>180</sup> Luis M. Mujika, *Euskal lirika tradizionala*, III alea, 491-492. or.

<sup>181</sup> XII. atala, 7. ahap.

c) *Urdina:*

Margarita,  
bai daitita  
othe huts zin egitez,  
begiz urdin  
bezain gordin  
zarela zur'egitez<sup>182</sup>.

d) *Kolore konposatuak:*

*Xurigorri:*  
Kristalez du belarra  
sudurr'oro zillarra,  
mazelak xuri-gorri,  
perla hutsez bidarra<sup>183</sup>.

*Beltzuri:*  
Zuk zuriak belzuriak,  
poru, handitarzunak<sup>184</sup>.  
Eta hunki-jin erran orde,  
ari zitzauzat belzuri<sup>185</sup>.

e) *Metaleak esanahi kromatikoz:*

*Urrea:*  
Buru ederreko adatsa  
laxurik baderatza,  
ba daitso gerriraino  
urh' izpiz aberatsa<sup>186</sup>.

## XXI. SOMATISMOA

Oihenarten poetikan oso nabarmen autoreak maitaturiko anderekien gor-puzkera deskribatzeko joera. Maiteminduen gorputz-atal gehienek aipu berezia dute. Batzutan, aipu horiek halako aldarte erotiko xume baten adierazpenetan ematen dira. Oihenarten erotismoa apala da, noski, ernazimenduko oldetan kokatu beharrekoa, hots, sensualitate sotilez bilduriko somatismo adierazkor

<sup>182</sup> II. atala, 1. ahap. *Urdin/gordin* delakoan hoskidetasuna, agian, bi epitetoen hurbiltasunaren arrazoiak.

<sup>183</sup> XII. atala, 8. ahap. *Lafonek* «Le menton en perles pures» *perla hutsez bidarra* delako itzultzean («Notes pour...», 77. or.).

<sup>184</sup> Beste zenbait olerki, II. 4.

<sup>185</sup> Beste zenbait olerki, V. 8. ahap. *Hunki-jin* = ongi-etorri. *Ari zitzauzat* = ari zatzaiz.

<sup>186</sup> XIII. 22. ahap. Gaurko euskararen honela litzateke: «Buru ederreko adatsa lasaki erortzen uzten badu, gerriraino jaitsiko zaio (*daitso* «jaitsi»ren formula sintetikoa), urre izpitan aberats».

batean. Ondorengo beste atal batean ikusiko dugunez, damaren soin-atalak iruditeria ernazentista batez trataturik daude, *perlak*, *kristalak*, *marfila* (bolia), *korala* eta gisakoak azaltzen zaizkigularik. Hona bere neurtzetan somatismo sentsuala isladagarri den testu zenbait:

a) *Soina orokorki*:

Gorputza duelarik  
 luzekara, hilarik  
 xuxen du, et'ezta lodi,  
 ez mehe soberarik<sup>187</sup>.  
 Haren gorputz lerdena  
 da nik dudan maitena<sup>188</sup>.

b) *Ileadatsa*:

Buru ederreko adatsa  
 laxurik baderatza<sup>189</sup>.  
 Adats ikustekoa  
 aztaleranokoa<sup>190</sup>.

c) *Biloa, ilea*:

Buruko bilo hori  
 urhea bezain hori<sup>191</sup>.

d) *Bekokia*:

Lehenik, bekokia  
 moldeaz idokia  
 iduri, iguzkiareki  
 argiz ihardukia<sup>192</sup>.

e) *Betartea, aurpegia*:

Haren ahorpegia  
 zer? Baderragu egia  
 zer derrakegu dela  
 bizik izartegia?<sup>193</sup>.

<sup>187</sup> XII. atala, 5. ahap.

<sup>188</sup> XIII. atala, 8. ahap.

<sup>189</sup> XIII. atala, 23. ahap. *Baderatza* = *etzan* aditzaren sintetikoa. Iruditeria ernazentista *ileadatsa* bizkarrean gerrirano *ur*re kolorez (*ba daitso gerrirano/urh'izpiz aberatsa*) jaisten dela dioenean.

<sup>190</sup> X. atala, 4. ahap.

<sup>191</sup> XII. atala, 7. ahap.

<sup>192</sup> XIII. atala, 10. ahap.

<sup>193</sup> XIII. atala, 9. ahap. *Īldo beretik*: «Ederrenen bardina/ (ezpadohat'aitzina)/da begitartez» (X. atala, 5. ahap.).



f) *Begiak:*

Begiz urdin  
bezain gordin  
zarela zur'egitez?<sup>194</sup>.  
Noizten begiez  
egin erautan zauria<sup>195</sup>.  
Begi gureak-ara  
zirudien bertara<sup>196</sup>.

g) *Sudurra:*

Kristalez du belarra  
sudurr'oro zillarra<sup>197</sup>.  
Oi, zeric du sudurra!  
Ez egi', ez apurra;  
xorhi, begi hont-garri,  
hala hala muturra<sup>198</sup>.

h) *Belarriak:*

Aldiz bi beharriak  
xuri miragarriak...<sup>199</sup>.

i) *Masailak:*

Gero ahutz-araldea  
potarentzat lardea...<sup>200</sup>.  
Mazelak xuri-gorri<sup>201</sup>.

j) *Ezpainak:*

Ezpainak ba dirudi  
dela koral isuri<sup>202</sup>.  
Ezpainak, arros'orri  
gorriak bezain gorri<sup>203</sup>.

<sup>194</sup> II. atala, 1. m

<sup>195</sup> IX. atala, 1. ahap. *Xuria* dama aipatuz. Baita: «Begi bizi, so hutsaz/maitharazi diroena» (X. atala, 6. ahap.), «Begi xiloak ditu/izar bigez garnitu/begitartea hanti/zauka hambat argitu» (XII. atala, 6. ahap.).

<sup>196</sup> XIII. atala, 16. ahap.

<sup>197</sup> XII. atala, 8. ahap.

<sup>198</sup> XIII. atala, 13. ahap. Eta oraindik: «Neguan, elhurte batez, /laztanak eskuta batez/ sudurra zaturirik/sudurrak min-har etzezan...» (XIV. atala, 1. ahap.).

<sup>199</sup> XIII. atala, 12. ahap.

<sup>200</sup> XIII. atala, 11. ahap. *Ahutz* delakoaren etimologia aski probableki lat. *fauces*-etik. Ikus M. Agud, A. Tovar, *Diccionario etimológico vasco*, II, 508. *Maxela* (*masaila*), berriz, lat. *maxilla*-tik. Cfr. Luis M. Mujika, *Latina eta erromanikoaren eragina euskaraz*, 64. or.

<sup>201</sup> XII. atala, 8. ahap.

<sup>202</sup> XII. atala, 9. ahap.

<sup>203</sup> XIII. atala, 14. ahap.

k) *Ahoa eta mihia:*

Ahoño, mihi ozena,  
hortzik den aratzena<sup>204</sup>.

l) *Hortzak:*

Hortzik den aratzena<sup>205</sup>.  
Hortzak aitzintzen, xuriz,  
ezain ezne isurkorri<sup>206</sup>.

ll) *Okotza:*

Bidar hori, behala  
nola boli-zotala<sup>207</sup>.

m) *Lepoa:*

Lepho arrai miratzeko,  
goxo besarkatzeko<sup>208</sup>.

n) *Besoak:*

Besoa bertz'oreoren  
patrointzat sor zedina<sup>209</sup>.

o) *Eskua, ukabila:*

Ukaraia, besoa,  
arhan-lil'itxurako<sup>210</sup>.  
Esku eta zango biak  
zuri bezain guriak<sup>211</sup>.

p) *Hatzak:*

Esku, erhi, et'ahurra  
hain xuri, zein elhurra<sup>212</sup>  
Erhi mehe, gaineti  
zilharztatu iduriak<sup>213</sup>.

r) *Bizkarra:*

Ezta gupi, ez zehar, ez,  
bana xuxen bizkarrez<sup>214</sup>.

<sup>204</sup> X. atala, 6. ahap.

<sup>205</sup> X. atala, 6. ahap.

<sup>206</sup> XIII. atala, 14. ahap.

<sup>207</sup> XIII. atala, 17. ahap. Lafonek itzultzen du: «Son menton ressemble à un bloc d'ivoire» (Art. c. 19. or.).

<sup>208</sup> X. atala, 7. ahap. Eta, oraindik, idarokikorrage: «Lepoa perla biziz/orhatua bezala» (XIII. atala, 17. ahap.).

<sup>209</sup> XIII. atala, 20. ahap.

<sup>210</sup> X. atala, 8. ahap. «Eskua xuri, nola/arraultze berri erruna» (XII. atala, 10. ahap.).

<sup>211</sup> X. atala, 9. ahap. Ildo beretik: «Ordua, bi hitz zuri erraiteko,/zur'eskuari banatzeko» (V. atala, 5. ahap.).

<sup>212</sup> XIII. atala, 21. ahap.

<sup>213</sup> X. atala, 9. ahap.

<sup>214</sup> X. atala, 3. ahap.

s) *Bularrak*:

Bolharr'aski ilhumbean  
argi zerbitzatzeko<sup>215</sup>.  
Ugatz gogor, lar-xuri...<sup>216</sup>.

t) *Gerria*:

Baitare gerri hersiz  
orotako lehena<sup>217</sup>.  
Beru ederreko adatsa  
laxurik baderatza,  
ba daitso gerriraino...<sup>218</sup>.

u) *Sabela*:

Balin balu, sabela  
garhi nerrake dela...<sup>219</sup>.

v) *Zangoa, aztala*:

Zango aratsu, xuguna...<sup>220</sup>.  
Zango zorhiki egina  
paieruz hobe'ezina<sup>221</sup>.  
Adats ikustekoa  
aztaletaranokoa<sup>222</sup>.

w) *Oinak*:

Oina, kaixuz, nolako?  
Ikusten gogarako...<sup>223</sup>.  
Oina doituz bezala  
meharr'eta laburra<sup>224</sup>.

## XXII. IRUDITERIA ERRENAZENTISTA

Esan beharrik ez dago Oihenart dugula euskal poesia kultista aintzinakoan poetarik landu eta errenazentistena, jarrera estilitikoa, garbizaletasun lexikala eta,

---

<sup>215</sup> X. atala, 7. ahap.

<sup>216</sup> XIII. atala, 18. ahap.

<sup>217</sup> XIII. atala, 8. ahap.

<sup>218</sup> XIII. atala, 22. ahap.

<sup>219</sup> XIII. atala, 19. ahap.

<sup>220</sup> XII. atala, 10. ahap.

<sup>221</sup> XII. atala 20. ahap.

<sup>222</sup> X. atala, 4. ahap.

<sup>223</sup> X. atala, 8. ahap.

<sup>224</sup> XIII. atala, 21. ahap.

batez ere, hemen azterkizun dugun iruditeriaren aldetik. *Gazteluzarren* txinparta ernazentista zenbait askoz apalagoa da Oihenartekin gonparatuta.

Jakina denez, ernazimenduan Grezia eta Erromako kultura klasikora itzulera gertatu zen Italian, Frantzian eta Espainian, batez ere. Honela, Italian Ariosto, Torcuato Tasso eta beste batzuk Homero eta Virgilioren poetika berreskuratu zuten, eta bere eragina, maiz, bilustasunez bilduta, Espainiara Boscán eta Garcilaso de la Vegaren eskutik etorri zen.

Frantzira ernazimendua prosan Rabelaisen eskutik, batez ere, sartu zen, eta poesian Marot eta Ronsarden bitartez. Ronsarden poesia amodiozkoak eragin handia izan zuen olerkian. Bere *Odes* eta *Amours* obrak gaur egun gogozkoenak. Dena den, Ronsardek bi joera ditu, bat erudito eta hanpurusogoa, bestea apal eta intimistagoa. Azken honek eragin handia eduki zuen.

Oihenart XVII. mendean kokatzen da, nagusienik. Bai Marot eta bai Ronsard XVI mendeko autoreak ditugu. Ernazimenduaren ukitua, Oihenarti behar bada, iritsi ziezaiokeen autore hauen eskutik. Bestalde, Oihenartek kultura klasikoaren zukeen ezagumena, hots, Grezia eta Erromakoarena, ez da ahantzi behar. Guri ez dagokigu hemen eragin literario hipotetikoaren azterketa egitea, irudien eta sinboloen konstatapena baino. Horretara mugatuko gara. Francisque-Michel euskalariak Maroden eragina bilatzen dio, baino Oihenartek Marotengandikoa baino zabalagoak eduki ditzake.

Oihenarten gaztaroko neurtitzetan ez da hain nabarmen kutsu bukolikoa, hots, artzain girokoa, amodioaren pasartetakoa baino. Alde honetatik kultur klasikoan ezaguna zen irudi zenbait, gerora Italian zehar Frantziara, Espainiara eta abarretara hedatua, konstatagarri Oihenarten poetikan ere. Adibidez, ileadatsa *urrezkoa* (cabellera de oro) dela esatea, ezpainak *arrosak*, hortzak *esnezkoak*, begiak *izarrak*, larrua *elur-kolorezkoa* (*piel nivea*), bekokia *eguzkia*, masailak *kristal* eta *marfilezkoak*, eta abar iruditeria ernazentista erabiltzea da, eta, azken finean, urreneko iturri batetik datorren kultura klasikoan atondutako irudi batzu gureganatzea. Ronsard eta Garcilaso gisako autoretan iruditeria hori atzemangarri. Oihenarten kasuan, noski, Frantziako ernazimenduaren eragina zuzenagotzat jo behar da.

Sarrera honetan esandakoak kontuan edukirik, azter dezagun hurbilagotik Oihenarten sinbolismo somatikoak. Nahiz eta poesia bukolikoko elementu zenbait atzeman bere neurtitzetan, funtsean, damaren somatismoa eta harekin loturiko iruditeria ernazentista da hedatuena. Paisaiako elementuak ez dira hain ugariak; adierazpen somatikoak, ordea, bereziki, *Xuria*, *Beltzarana* eta *Joanaren* soina deskribatzean, oso sugerigarri, bizi eta oparoak dira, eta gehienak iruditeria klasiko-ernenazentista baten ildotik.

Irudi batzuk arlo botanikotik datoz, *arana* (besoa) eta *arrosa* (ezpainak) kasuak bezala; beste batzuk naturako fenomenoetatik (*elurrezkoak* dira, adibidez, hatzak, bularrak, hortzak, eta lepoa; *izarrak*, *izartegia*, *artizarra* eta

*eguzkiaren* gisako bekokia, betartea, begiak). Bestalde, metale preziatuen aipua *urrea* (ileadatsa), *zilarra* (hortzak), *perla* (lepoa, okotza), *korala* (bularra), *marfila* (okotza), *kristala* (belarria) kasuetan. Iruditeria hau, noski, errenazentista da, eta tradizio klasikoko mintzairarekin lotua <sup>225</sup>.

Goazen iruditeria hau damaren soin-atalak aipatuz aztertzeraz; sailkapena sinboloen ildotik eginen dugu.

1) *Izadiko elementuak*:

a) *Eguzkia* = bekokia, kopeta:

Lehenik, bekokia  
moldeaz idokia  
iduri, iguzkiareki  
argiz ihardukia<sup>226</sup>.

b) *Izarrak, izartegi, artizarra* = begiak, betartea, biloa:

Haren ahorpegia  
zer? Baderragu egia  
zer derrakegu dela  
baizik izartegia?<sup>227</sup>  
Beraz bilho; en 'artizarra,  
lardei'oro kampa<sup>228</sup>.  
Begi gureak-ara  
zirudien bertara,  
bana kanbiatu da  
geroz izarretara<sup>229</sup>.  
Begi xiloak ditu  
izar bigez garnitu,  
begitartea hanti  
zauka hambat argitu<sup>230</sup>.

<sup>225</sup> Gazteluzarren poesian badira, esan dugunez, iruditeria errenazentistaren zentzuak, bainan ez Oihenarten hedaturaz. Hona kasu zenbait: «Urrun adi Parnaseko /musa zahar profanoa/ eta zu zaro zeruko /musa berri dibiñoa», «O diamanten klartasuna;/ o perlen distiadura» (*Egia katolikak...*).

Orixen kasuan (XX. mendeko autore klasizista) iruditeria gehiago konektatzen da Gaztelako mistiko eta aszetikoekin (San Joan Gurutzekoa, Fr. Luis Leongoa eta kideekin); azpi oinarriak, neurri handi batean, Bibliako *Kantuen Kanta* liburuaren iruditerian, nahiz eta itxia ez egon ernazimenduko simbolismora aipaturiko autoreen zehar. Cfr. Luis M. Mujika, «Sinbolismoa eta eraginak Orixe-ren poesian», in *Orixe-ren aportazio literarioak*, EHU (Udako ikastaroak), 47-94. or.

<sup>226</sup> XIII. atala, 10. ahap.

<sup>227</sup> XIII. atala, 9. ahap. Ahapaldi honetan *erran* aditzaren bi sintetiko: *derrakegu* = *erran* dezakegu, *baderragu* = *erraten* badugu.

<sup>228</sup> XV. atala, 8. multzoa. *Artizarra* = *estrella venus*, *argi* eta *izar* konposatuetatik. *Argi* delakoak konposakeran *art-* formula, *arturratu* kasuan bezala.

<sup>229</sup> XIII. atala, 16. ahap.

<sup>230</sup> XII. atala, 6. ahap.

d) *Elurra* = eskua, hatzak, hortzak, lepoa, bularra:

Esku, erhi, et'ahurra,  
haim xuri, zein elhurra;  
oina doituz bezala  
meharr'eta laburra<sup>231</sup>.

d) *Ilargia* = begia:

Nahiz ezpegi  
gauaz ilhargi,  
ni zure begi  
ederrek argi<sup>232</sup>.  
Ezpainak ba dirudi  
dela koral-isuri,  
hortzak, lepo, bulharra  
elhurra bezain xuri<sup>233</sup>.

## 2) *Botanikatik jasotako elemenduak:*

Kontutan edukitzekoa da euskal lirika zaharrak zenbateraino garatu duen botanika arlotik datorren iruditeria gozo eta sotila, *arana*, *ezpela*, *iratzea*, *sagarra*, *mihilua*, *arrosa*, *mertsika*, *gerezia*, besteen artean, aipagarri direlarik. Cfr. Luis M. Mujika, *Euskal lirika tradizionala*, III. alea, 513-533.

a) *Arrosa* = ezpainak:

Ezpainak, arros'orri  
gorriak bezain gorri<sup>234</sup>.

b) *Arana* = besoa, ukabila:

Oina, kaisuz, nolako?  
Ikusten gogarako;  
ukaraia, besoa,  
arhan-lil'itxurako<sup>235</sup>.

c) *Jirofleia*

Nola baratze lantzekoan  
jirofleiak, uda beroan (*Ezkontideen bil-kexua*, 10. multzoa)

<sup>231</sup> XIII. atala, 21. ahap. *Elurraren* aipamena ere antitesi baten barnean, bihotzaren aldarteak adieraziz: «Elhurraz gaineti, hotzaik,/bai karroinik, bai izotzik/ba deia deus lurtean?» (XIV. atala, 2. ahap.). *Karroin* = jela, horma.

<sup>232</sup> XVI. atala, 1. ahap.

<sup>233</sup> XII. atala, 9. ahap.

<sup>234</sup> XIII. atala, 14. ahap.

<sup>235</sup> X. atala, 8. ahap. *Ukaraia* = ukabila. *Arhan-lil(i)* = arana (flor de ciruelo).

d) *Liliak*:

Sagartzeak, lilitan jarten  
 bad'eta, lilitu ondoan  
 ostutzen ere, gero ekarten  
 du frutua ber'aroan (*Beste zenbait olerki, V, 3 ahap.*)  
 Nik hatsean, lili orde, zuten  
 bat'ukan ditut karezak (*Ibidem, 4 ahap.*)  
 Geroz oihana lilitu da  
 bait'ar'orstatu lauretan  
 ud'ere negu, negi'uda  
 gerthatu da hainbertzetan (*I atala, 2 ahap.*)

3) *Metale preziatuak*:

a) *Urrea* = biloa (ilea):

Buruko bilo hori  
 urhea bezain hori,  
 bana gordatzen du, eta  
 salhatze'ez da sori<sup>236</sup>.  
 Ile urrestatu horiak  
 nadukate harturik<sup>237</sup>.

b) *Zilarra* = eriak, hatzak:

Gero ahutz araldea,  
 potarentzat lardea,  
 ezt'igeltsu, ezta zilar,  
 bana kristal-ordea<sup>238</sup>.  
 Esku eta zango biak  
 xuri bezain guriak,  
 erhi mehe, gainetik  
 zilharztatu iduriak<sup>239</sup>.

4) *Elemendu bitxiak*:

a) *Korala* = ugatzak, ezpainak:

Ugatz gogor, lar-xuri,  
 leunez balouz'iduri;

<sup>236</sup> XII. atala, 7. ahap. *Sori* = zilegi.

<sup>237</sup> Beste zenbait olerki II. 2. ahap.

<sup>238</sup> XIII. atala, 11. ahap.

<sup>239</sup> X. atala, 9. ahap.

mokoetan xartaturik  
koralez bi mohuri<sup>240</sup>.

b) *Marfila* = okotza:

Bidar hori, berhala  
nola boli-zotala<sup>241</sup>.

c) *Perla* = lepoa, masaila:

Lepoa perla biziz  
orhatua bezala<sup>242</sup>.  
Mazelak xuri-gorri,  
perla hutsez bidarra<sup>243</sup>.

d) *Kristala* = kopeta:

Kristalez du belarra  
sudurr'oro zillarra<sup>244</sup>.

5) *Beste zenbait elemendu*:

a) *Esnea* = hortzak:

Ezpainak arros'orri  
gorriak bezain gorri:  
hortzak aitzintzen, xuriz,  
ezein ezne isurkorri<sup>245</sup>.

Hemengo irudietan metafora zenbait lotuta, damaren deskribapen somatiko-koa egitean eta emaztekoa karakterizatzean irudi berezitara jotzen baitu. Hala-nola, *zeta*, *burdina*, *tragaza* (gezia), *beruna*, *altzairua*, *enara*, *hautsa*, *igeltsua* ildo horretakoak. *Tragaza*, garbiro, irudi ernazentistaren ildokoa amodioaren trataeran.

a) *Enara*:

Zerik inhara  
naiteeno akit,  
noa horra, hara,  
nor'ezpaitakik<sup>246</sup>.

<sup>240</sup> XII. atala, 18. ahap. *Mohuri* = bihi, ale. *Balowz(a)* = fr. velours, gazt. terciopelo. Baita: «Ezpainak badirudi dela koral isuri» (XII atala, 9 ahap.).

<sup>241</sup> XIII. atala, 17. ahap. Baita sudurrari dagokionez: «Kristalez du belarra/sudurr'oro zillarra» (XII. atala, 8. ahap.).

<sup>242</sup> XIII. atala, 17. ahap.

<sup>243</sup> XII. atala, 8. ahap. *Mazela* = masaila, lat. *maxillam*-etik.

<sup>244</sup> XII. atala, 8. ahap. Azken irudi gehienok gaztetako *Beltzarana* damari eskainitakoak.

<sup>245</sup> XIII. atala, 14. ahap. Azken hau *Joana* emaztekiari eskainitako neurtitzetan.

<sup>246</sup> XVI. atala, 5. ahap.



b) *Tragaza* (gezia):

Et'ene bihotz gaxoak  
higanik, maita-sari,  
herskailu ordari,  
zitin tragaza-xiloak<sup>247</sup>.

c) *Zeta*:

Leunez, baitare mehez,  
zetaren gainekoa<sup>248</sup>.  
Adatsa ikustekoa  
aztaleranokoa

d) *Burdina, altzairua, beruna*:

Ez, ez, ahal aint'engana;  
eztun alzeiru, ez burdina,  
ez-eta berun hotza<sup>249</sup>.

e) *Hautsa*:

Ezpaneazazu  
hauts gertha naite<sup>250</sup>.

f) *Igeltsua* (kisulabea):

Zurekin batu  
et'aize gabe.  
Su naiz bilhatu  
ta kisu-labe<sup>251</sup>.

*Ezkontideen hil-kexua* delakoan (hots, *Joana* emazte hilari eskainitako hil-eresian) *musak* eta *Febus* mitologiakoa nabarmen («Ezi balitu Jainko arxeter/ (zeinen baitzarete bereter) /izenez Phebus deritzanak»).

<sup>247</sup> IX. atala, 1. ahap.

<sup>248</sup> X. atala, 4. ahap.

<sup>249</sup> IX. atala, 2. ahap.

<sup>250</sup> XVI. atala, 11. ahap. Baita: «Laster hil dadin/zuhaurk egigu; /ilhaunt enadin, ahal daidizu» (XVI. atala, 10. ahap.).

<sup>251</sup> XVI. atala, 9. ahap. *Kisu* = lat. *gypsum*-etik.

Hasieran aipatzen genuenez, Oihenarten mintzaira arkaizanteak gaur egun itzalirik dugun hitz eta adizkera anitz. Hona pilaturik neurtitzetako adiz *sintetiko* zenbait, batzu, dagoeneko, testuan azalduak: *Baitagidazu*, *narrain*, *nakutsun*, *zindiaurizan* (*jawgin aditzatik*), *banatxeko*, *dakusat*, *dirankedala*, *neroske*, *dauntzanak* (*eizan aditzatik*), *datxen* (*etxekei aditzatik*), *baderragu*, *derrakegu* (*erran aditzatik*), *leriztan*, *zaramatza*, *bailedas(e)*, *derakustano*, *derakuskegu*, *negizu* (*egin aditzatik*) *narraizu* (*jarraitu aditzatik*), *badagidazu*, eta abar.